

ttiipi-ttapa



HAUNDIAK BETETZEN ETA TTIKIAK HUSTUTZEN

Azken hamar urteotako datuak aintzat hartuz, biztanleriak goiti egin du eskualdean, baina Senpereko —argazkian— eta Sarak izan duten igoera nabarmenaren ondorioz gertatu da hori. Bertzelakoa da gainerako herrietako egoera.

TTIPI-TTAPAREN eremuan dauden 27 udalerrietatik 16tan jaitsi da populazioa. Oizen kasuan, ia %23 egin du beheiti. / 8

SENPEREKO HERRIKO ETXEA

Bertsolari Txapelketako finala

Zortzi bertsolari ariko dira larunbat honetan Iruñean jokatu den Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean / 12

SINADURAK



ZOKKETA / 52

Malerreko Kultur Bira Iturenen eta Eratsunen hilaren 23an eta 30ean / 22

Hamargarren Lezeen Eguna igande honetan Xaretan / 39



Egun historikoa eta berezia izan da aurtengo martxoaren 8a / 26



Senpereko Auxtín Zamora eta Henri Duhau ohoratu ditu Euskaltzaindiak / 40

FINALA



Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019

IRUÑEA

Martxoak 23. 17:00etan, Anaitasuna kiroldegian
Ate irekiera: 15:30ean



Eneko Lazkoz Martinez, Xabier Terreros Gartzia, Joanes Illarregi Marzol, Eneko Fernandez Maritxalar,
Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Julen Zelaia Iriarte eta Xabi Maia Etxeberria

Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero | Aurkezlea: Fernando Anbustegi Goñi

Sarrerak salgai: Fantxiken (Elizondo), Okindegian (Lesaka),
Maimurren (Leitza) eta www.bertsosarrerak.eus atarian

Antolatzailea




Laguntzailea




27.000
irakurle




Liderrak
gure eskualdean
eta baita azterketa egiterakoan
CIESeK Nafarroa Garaiko
mendialdean
hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere



♀ %44 EMAKUMEAK
♂ %56 GIZONAK



IKASKETA MAILAREN ARABERA



Datu iturria: CIES, 2018ko metatuak



NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

Zerbait aldatu da

Badira 25 urte baino gehiago Bera eta Lesakako neska nerabe talde bat futboleko hasi zela, Bortziriak taldean. Euren adineko mutilek egiten zuten gauza bera egin zuten: liga batean aritu. Epelak aditu behar izaten zituzten. Argudio nagusia (aski ahula!), hura ez zela emakumeen kontua.

Berriki, Arantzan, neska pilotarien topaketa egin zuten, eta gisako aipamenik aditu

behar izan nuen, berriz, erdi brometan, erdi serio, neskek pilotan ezin dutela jokatu, ez dutelako indarrik. Errugbian, arpanean edota aizkora aritzen direnekin, bertze

horrenbertze. Eta baita kirolek kanpo ere, «bakarrik gizonen eremuak» izan direnak ukitu dizkietenean, dela zientzia eta teknologian, dela lan-eremu industrializatueta, politikan...

25 urtean guti aitzinatu dugula iruditzen zait, maiz. Eta ez da egia. Matxismoak berdin segitzen du zanpatzen eta hiltzen. Baina, gaur, futboleko hasi ziren gaztetxo talde ttiki haren gisara, ehunka dira karrikerak euren lekua aldarrikatzera ateratzen diren emakumeak. Martxoaren 8an, eta egunero.

**«EHUNKA DIRA
KARRIKARAT
ATERATZEN DIREN
EMAKUMEAK»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Nafarroa plus eta Laurak Bat lehian

Herriz herri izanzen diren hauteskondeez gain, Espainiako kongresukoak, Europakoak eta Nafarroako Parlamentukoak datoz. Nafarroan bat egin dute lau gobernuak eta bat egin UPN, PP eta Ciudadanosek ere. Azken hauek Nafarroa gehiago nahi omen dute: Nafarroa Plus. Bazterretik begira (oraingoz) Vox dutela kontuan hartuz, Navarra Plus Ultra.

NABARMENTZEKOAK



**NEREA
SORONDO**
AIZKOLARIA



**RUBEN
SARALEGI**
AIZKOLARIA

Beratarra zen faboritoa, eta nagusitasunez jantzi zuen martxoaren 2an Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketako txapela. 06:33ko denbora behar izan zuen lanak bukatzeko.

Leitzako saralegitarrak diren Iker Vicente eta Ruben Saralegi lehengusuek arazorik gabe irabazi dute aurten ere Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa.

ATZERA BEGIRA



2009-03-19 · TTIPI-TTAPA · 490 zk.

Txus Unsiön Berako lasterkariarekin

2008an Saharako Maratoian parte hartu zuen Txus Unsiön beratarrak. Ez hori bakarrik. 50 urtetik goitikoen kategorian hirugarren gelditu zen eta sailkapen nagusian 30. helmugaratu zen. Hori aitzakiatzat hartuta, TTIPI-TTAPAK elkarriketa egin zion duela hamar urte eta «esperientzia polita baina gogorra» izan zela kontatu zuen; polita «berriz joateko gogoz itzuli zelako» eta gogorra «hango klima eta bizi-baldintzen-gatik». Oinean mina zuela egin zuen ibilbide erdia: «lesioak izan ditudanetan, beti bukaera arte segitu izan dut». Bertzetik, mendiko eta ibilbide luzeko lasterketak gustuko zituela aitortu zuen: «lasterketa motzetan abiadura behar da eta nik ez dut. Erresistentzia da nirea eta ibilbide luzeak nahiago ditut».



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Kontaktok bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larrañe, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdosain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemane Irigoien

Administratzailea

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarteak

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€





KOLABORAZIOAK

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Nagusi izan nahia

Emaztekiaren aipatzea bereziki nabarmendu da hondarreko egunetan. Arrazoia? Ez delako aski errespetatzen bere izaera. Xeheki, gizasemearena baino gutiago. Eta zein da errespetatu behar den izaera hori? Jende izaera, nik uste. Eta zein dira jende izatearen ezaugarriak? Zenbait gogoratu behar eta, pentsatzea izaten ahal da ezaugarri bat, eta sentitzea, mintzatzea, indar fisikoa. Banaz bertze, azkenekoaz aparte, behar bada, gizasemearen jendetasun berdinekoa da emaztekoa.

Baina... soldata ttikiago izaten du, aunitzetan; ardura edo kargu eskasagoa, aginte politiko, jendarte nahiz erlijioakoan. Nazareteko Jesusen segitzaileen arteko elizan, nabarmenago ikusten da hori, nahiz eta emaztekiak diren, hain zuzen, gehien parte hartzen dutenak. Eta Jesusen Berri onean, jendarteko berdintasuna eta apaltasuna nahiko azpimarratuak badaude ere.

Munduko jendartean, ahalik eta nagusia izateko goseak eragin handia du, lehen eta orain; bai jende arteko hartu-emanetan, bai herrialde edo nazio artekoetan ere. Erraterako, Amerikako historiaren berri bezalako zerbait bederen jakiteak, aski argi eskaintzen ahal digu.

«JENDEA LIBRE IZATEKO SORTUA DA, GIZONA NAHIZ EMAKUMEA»

Hainbertze lurralde dituen eremua, hainbertze herrialde eta kulturaz hornitua zena, gaur egun europar arraza eta kultura erabat bertako nagusi direla erraten ahal dugu. Europarrek indarrez menperatu zutelako.

Eta Amerika baino hurbilago gertatzen denaz ohartzeak berak garbi erakusten digu, zeinen zail bilakatzen zaigun, jende arteko aniztasun eta ezberdintasuna errespetatzea. Gizartea gobernatzeko taldeak behar eta, elkarrekin ezin konponduz ibiltzen dira. Denen gainera, nagusi izatea bilatzen. Eta ez gaitezen gure Herrialdeaz, Euskal Herriaz, atzendu. Beren menean eduki nahi gaituzten, gu baino handiago diren herrialdeengandik defenditzea baita gure historia luzea. Eta, segur, oraindik gehiago luzatuko dena. Emakumearen askatasun eta berdintasuna aldarrikatzean, Herriarena ere bulkatzen dela iduri du. Dena den, jendea libre izateko sortua da, gizona nahiz emakumea; zoriotsu izateko sortua den bezala. Horiek betetzen saiatzea, beraien eginkizuna ere bada. Eta aitortu behar, neke zerrenda luzea jasan dutela hainbatek historian zehar, helburu horren alde jotzatzeagatik.



MIREN CAMISON BIDAIZ ELKARTEA

Haziera eta heziera ekologikoa

'Ekologia' Konplexutasunaren Paradigmaren baitan dagoen kontzeptu sistemikoa da. Gizakion arteko harremanak eta gure harremana lur planetarekin ikuspegi interkonektatu batetik ulertzera eraman gaitu.

Ekologiaren Paradigma esparru guztietara heltzen ari da: sostengarritasuna aldarrikatzen duten ekonomia eredu alternatiboak, energia berriztagarriak, elikadura biologiko osasungarria, kontsumo etikoa, bioaniztasuna eta ingurumenaren zaintza, osasunaren eredu biologikoaren aldeko medikuntza... Eta baita haziera eta hezkuntza eredu ekologikoa errespetatuz bizi nahi duten guraso edota eskola proiektuak ere.

Gurasotasun kontzientea

Gurasotasuna kontzientzia gehiagorekin bizitzeko saiakeran diharduten familiak ugaritzen ari dira. Helduok erabilitako hitzek, ekintzek eta jarrerak haurrengan duten eraginaz

konturatzen hasiak gara. Belaunaldiz belaunaldi hazi eta hezi izan garen komunikazioaren eredu autoritarista zalantzan jarri eta haurrarekin beste eredu komunikatibo bat sortzeko erronka daukagu. Haurrei beharrezkoa

duten askatasuna aitortu eta mugak modu emozional orekatu eta lasaiago batean jarri nahi duten gurasoak dira.

«EKOLOGIAREN PARADIGMA ESPARRU GUZTIETARA HELTZEN ARI DA»

Hezkuntza demokratikoa

Eskola demokratikoen ardatza haurren ongizate integrala da. Haur bakoitzak bere interes eta jakin-mina modu indibidualizatu batean garatu ahal izateko sortuak daude hainbat eskola espazio zein material. Inork ez ditu ikasten une berean gauzak berdinak. Ezta modu berean ere. Pedagogia honetan amankomukeko ezaugarri batzuk aipa daitezke: ez dago orduz orduko ikasgaien antolaketarik, ezta azterketarik ere eta haur eta gazteek beraien ikasketa prozesuaren diseinatzaileak bihurtzen dira, hau da, beraien ikasketaren jabe.

Hezkuntza libertarioaren baitan hainbat eredu daude, batzuk eskola kontzeptua zalantzan jartzen dute, esaterako: *unschooling* eta *homeschooling*. Eskola instituziotik kanpo dauden ikaskuntza autonomoaren esperientziak dira (Illich, Holt).

Gaur egun Bortzirietako eskola txiki batzuetan eredu hauetan inspiratuak dauden inizatiba berrien hastapenak ditugu: konfidantzaren pedagogia, Montessori eredua, yoga eta arte adierazpen pedagogikoak, besteak beste.

11 GALDERA LABUR

LIERNI SESTORAIN SARALEGI SUITZAN BIZI DEN LEITZARRA

«Hizkuntz itzulpena hobetzeko ikerketan lan egiten dut»

Nor da Lierni Sestorain?

2015etik Zurich (Suitzan) bizi den 25 urteko leizarra.

Zergatik jo zenuen Suitzara?

Ingeniaritza informatikoa ikasi ondotik masterra egiteko Europako programak begiratu nituen eta gustukoak nituen biak Suitzan aurkitu nituen.

Hasieran zer izan zen zailena?

Ikasketa-mailara egokitzea: batetik, ingelesez hitz egitera ohitu behar izan nuen; eta bestetik, eskakizun-maila handia zen. Ordu asko eta asko ikasiz eta inguruko jendearen laguntzaz aurre egin nion.

Orain Googlen ari zara lanean...

Masterrean ikasketa automatikoan sakontzen hasi nintzen eta Googlen lan egiten zuen irakasle bat ezagutu nuen.

Ikasketak bukatu nituenean, bere taldeko lanpostu baterako hauta-probak egiteko ize-na eman nuen. Aurrera egitea lortu nuen eta egun hor ari naiz.

Itzulpen automatikoen alorrean ari zara...

Bai, baliabide gutxi dituzten hizkuntzen arteko itzulpenak ikertzen ditugu.

Zein da helburua?

Hizkuntza hauen arteko itzulpena errazteko eta hobetzeko algoritmo orokor bat aurkitzeko lan egiten dugu.

Lanak ekarpen handia egin dizu...

Batetik, lanari esker masterrean ikasitako guztia praktikan jarri ahal izan dut; eta bestetik, jende eta ikerlari bikainak ezagutzeko bide eman dit.



Zeren hutsunea sumatzen duzu?

Lagunak eta familia, amaren jana eta festak falta ditut, norberaren etxeko eta herriko giroa ez dago beste inon.

Alde onak ere izanzen ditu...

Bai, noski. Horri esker mundu osoko jendea ezagutu ahal izan dut eta kultura nahasketa horretan bizitzea aberasgarria da. Egunero zerbait ikasten dut.

Zenbatero egiten duzu bisita herrira?

Bizpahiru hilabetea behin bisitaren bat egitea gustatzen zait...

Etorkizunera begira zein da zure asmoa?

Egia esan ez dakit. Zurichera masterra ikasteko bakarrik etorri nintzen eta momentuz gustura nago bai hirian baita lantokian ere. Beraz, ez dut bueltatzeko asmorik. Momentuz gozatzea erabaki dut, gero ikusiko dugu denborak nora naraman.

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Ohe estalki kolekzio anitza

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Morroi ona baina nagusi txarra

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA LEITZAKO ALKATEA

Azken asteetan mendiko sute asko izan ditugu gure inguruan, Ezkurran, Areson, Leitzan eta larrienak Goizuetan. Goizuetako bi suteetan 200 hektarea baino gehiago erre dira, hau da, 400 futbol-zelai baino handiagoa den azalera erre da bi suteetan.

Sute hauek badute elementu amankomun bat, denak pertsonen eragindako suteak izan direla. Eta gehienetan, larreak berritzeko eta mendia garbitzeko asmoarekin hasten dira.

Aspaldiko esaera da sua morroi ona dela baina nagusi txarra. Gure inguruan, suaren kultura ez da oraingo kontua, sua lanerako tresna gisa erabiltzea alegia. Baina suaren erabilera txarra egiten denean, arazoak ere larriak izaten dira. Sua neurritz, baimendutako egunetan eta jasotako baimenaren arabera bakarrik egin daiteke, beti burua eta zentzua erabiliz. Ezin dugu ahaztu suteetan gure inguruaren parte diren mendi, zuhaitz eta animalia askoren habitatak jokoan jartzen direla. Eta sute horien aurka aritzen diren pertsona askoren bizia ere arriskuan jartzen dela. Zentzu honetan, Leitzako eta Goizuetako suhiltzaile boluntarioen eta suhiltzaile profesionalen lana goraiatzekoa da.

Mendietan gero eta abere gutxiago dabil eta larreak gero eta zikinagoak daude. Eragiketa honetan lurra lehor egotea gehitzen badiogu, ondorio latzak izan ditzakeen sutea sortzeko ekuazioa dugu. Eta egoerak ez du hobera egingo datozen urteetan. Aldaketa klimatikoak suteak sortzeko lehorte gehiago eta bortitzaioak ekarriko baititu, eta larreak

ere zikintzen jarraituko dira, abeltzaintza tradizional eta estensiboak pairatzen duen egoera larriari irtenbidea ez badiogu ematen, betiere.

Gure aldetik lanean gabiltza abeltzainen eta baserritarren bizimoduari ahal dugun neurrian laguntzeko, honek, gainerako ondorio garrantzitsuez gain, ingurunean ezinbesteko eragina baitu, larreak garbi mantentzea suposatzen baitu abereak mendian dabilatzalako. Baina egiten den guztia sekula ez da nahikoa izango.

Mundua eta honenbestez, gure ingurua, asko aldatu da. Aldaketa hori gure mendietan ere begi bistakoa denez, tamainan jokatzea egokitzen zaigu. Beharrezkoa da suaren inguruan kontzientzia hartzea. Erreketek arrisku handia dute, eta gero eta handiagoa izango dute. Beti kontrolpean egin behar dira, dagozkien baimena eskuratu, garaia eta debekuak errespetatuz. Erreketak baimenik gabe egiten direnean, eta hauek sutea eragiten badute, egilearentzat isunak eta gartzela zigorrak ere izan daitezkeela presente eduki behar da. Hemen ere errespetuz jokatzea ezinbestekoa baita, eta ezin denean, ingurunea bakean uzten jakin behar da.

Askok dugu jokoan: gure ingurua, mendiak, basoak, zuhaitzak eta bertan bizi diren animaliak, baita suteak itzaltzen aritzen diren pertsonen bizia ere. Paisaia eta inguru paregabea dugu, baina ingurune hau erregai bikaina da. Mendiko suteen aurkako ardura botere publikoek eta gizarte zibilak partekatzen dugun zama da. Joka dezagun arduraz. Bukatzeko, gure herrietako suhiltzaile bolondresei, nire esker mugagabea adierazi nahi diet.



BOTA BERTSOA

ESTEBAN
AROEZA

GOIZUETAKO BERTSOLARIA

Goizuetako eta bere fruituak

Doinua: Habanera

*Goizuetako zen burniaren
harria eta labea,
ikazkinaren gaupasa,
berun errukigabea.
Mendian pinuak lirain
gaztainak ihar ordea,
kalean haurrak gainezka,
parranda jaun ta jabea.
Goizuetako da ekimena,
elkartasuna, fedea,
euskara, kantua, dantza,
kirola ta kolorea.
Euskal Herriko sustraien
gotorleku dotorea,
izadi basati hontan
iraungo duen lorea.*

*Loreen eginkizuna
da fruituak ematea
ba, gureak sortu zuen
bat sano eta fuertea.
Bi mila eta sei zen
ernalkultzaren urtea,
hortxe jaio zen talde bat,
dena artistaz betea.
Orduan zaila izan zen
ezerezetik hastera,
orain zain egoten gara
noiz pasako den astea.
Korua da kantuzale
guztien lagunartea
Goizuetako musikarekin
uztartzeko duen katea.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.
eusk
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Argazkia: "Ikusiz ikasi" - Juan Carlos Olaetxea

Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. **TTIPI-TTAPA** eta **XORROXIN** zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak **ERRAN.EUS** artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak **ERRAN.EUS** atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- Argazkiak bidaltzeko epea: urtarrilaren 20tik martxoaren 22ra.
- **ERRAN.EUS**eko erabiltzaileen saria emateko **bozketak fasea**: martxoaren 27tik apirilaren 12ra.
- **Irabazleak**: **ERRAN.EUS** atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 15ean.
- **Sari-banaketa**: maiatzean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



nekatur
www.nekatur.net

**NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA**
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

ELBETEKO POSADAN
2 lagunendako otordua



ELBETEKO POSADA
Nagusia, 1 ELBETE
Tel: 948 581 519
www.posadaelbete.com/eu



Herri haundiak goiti eta ttikiak beheiti

Azken hamar urteotako biztanleria datuak kontuan hartuz, TTIPI-TTAParen eremuan dauden 27 udalerrietatik 16tan beheiti egin du. Horien artean, jautsiera haundiena izan duen herria Oiz da, ia %23a egin baitu beheiti. Nabarmen hazi dena, berriz, Senpere da, ia %56ko igoera izan du

G. PIKABEA

Azken hamar urteotan goiti egin du biztanleria eskualdean; %10 igo da zehatz errateko. Berezi Sara eta Senperen izan duten igoera nabarmenaren ondorioz gertatu da hori. Duela hamar urteko datuak eta oraingoak kontuan hartuta, Saran %21,6 eta Senperen %55,8 hazi da biztanleria. Bertze udalerri gehienetako datuak, ordea, hagitz bertzelakoak dira.

Goiti eta beheiti

TTIPI-TTAPak hartzen duen eremuko 27 udalerrietatik 16tan guttiti da biztanleria eta batzuetan nabarmen gainera. Arano, Beintza-Labaien, Ezkurra, Goizueta eta Oizko kasuak dira aipagarrienak: %14,70, %12,02, %14,77, %11,88 eta %22,93 egin dute beheiti hurrenez hurren duela hamar urtetik honat. Maila apalagoan bada ere, bide bera hartu dute Eratsunek (%7,31), Bertizaranak (%7,04), Urrozek (%6,73), Urdazubik (%6,58), Elgorriagak (%5,19), Arantzak (%4,07), Saldiasak (%3,33), Baztanek (%2,64), Aresok (%2,48), Etxalarrek (%2,19) eta Lesakak (%1,58).

Sara eta Senpereren hazkundetik urruti daude biztanlerian goiti egin duten gainerako udalerriak. Donezteben %8,18 hazi da biztanleria azken hamar urteotan, Iturenen %4,78, Sunbilla %3,71, Beran %2,20, Igantzin %1,30, Leitza %0,76, Zubietan %0,64 eta Donamarian %0,47. Zugarramurdi da duela hamar urteko biztanleria kopuru bera duen bakarra.

Baztan eta Bertizarana

Baztango hamabortz herriek udalerri bakarra osatzen dute eta gauza bera Bertizaranako hirurek. Udalerri gisa kontuan hartuz, beheiti egin dute biek. Eta Bertizaranaren kasuan, hiru herrietako martxa horixe da. Azken bortz urteotako datuei erreparatuz, Oieregin (%23,53), Legasan (%4) eta Narbarten (%0,38) jautsi da populazioa.

Baztanen kasuan, herri gehienetan egin du beheiti biztanle kopuruak: Gartzainen

(%14,03), Almandozen (%12,98), Amaiurren (%8,83), Lekarozen (%6,49), Oronoz-Mugairin (%6,33), Berroetan (%5,93), Arizkun (%5,26), Iruritan (%4,20), Zigan (%2,58), Elizondon (%2,32) eta Erratzun (%1,27). Gainerako lau herrietan, ordea, hazi egin da: Elbeten (%6,47), Anizen (%2,70), Azpilkuetan (%2,20) eta Arraiozen (%1,67).

Haundiak haundi, ttikiak ttiki

Oro har, haundiak haundi eta ttikiak ttiki. Hori da joera eta

datuak dira lekuko. Salbuespenak salbuespen, herri ttikitian biztanleria jausten ari da urtetik urtera eta hori «tamalgarría» da Isabel Elizalde Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilariaren ustez. «Mundu mailako» joera dela dio: «azken hamarkadetan hirien populazioak nabarmen goiti egin du eta munduko populazioaren %54 inguru hirietan bizi da; Europan portzentaje hori %75ekoa da. Nafarroaren kasuan, populazioaren %54a Iruñerrian bizi da».

Gure eskualdean gertatzen ari dena «Nafarroa mailako prozesuaren antzekoa» dela uste du Elizalde: «herri kozkorrek haunditu edo guttienez, egonkortzeko joera dute, herri ttikiek galdu duten heinean. Halere, Baztan-Bidasoaldean eta Larraun-Leitzaran mailan populazioa mantendu da azkeneko urteetan». Nafarroan «egoera kezkagarria» duten eskualdeak «Pirinioak, Aurrepirinioak eta Lizarralde» direla kontatu digu, «baita Malerreka herri ttikiak ere». Eta joera horren gibelean «faktore ekonomikoak eta sozialak» omen daude. Berezi «kezkagarria» iruditzen zaiona «azken urteotan gehienbat gizarte mailan izan den aldaketa da. Orain urte batzuk ohikoa zen herrian bizitzeak eskaintzen dituen lasaitasuna, jendearen arteko harremanak edo ingurumena aintzat hartzea. Gaur egun, herrietako bizimodua baloratzerakoan, hirietan erabiltzen diren adierazleak kontuan hartzen ditugu, gure herrietara egokitzen ez direnak».

Errealitatearen bi aurpegiak

Herri batetik bertzerara egoera aldatu egiten da. Herri batzuk «bizi haundikoak eta eredu-garriak» direla azpimarratu du kontseilariak. Eta horren adibide, «Lekarozen, familia batzuk eskola berriro irekitzea» lortu izana eta «Etxalarren Karmen Etxalarkoa pastoralala-



Gaiari lotuta, 'Goizuetan lan eta bizi' izeneko hiru jardunaldi egin dituzte. F. LOIARTE.

**ESKUALDEKO
16 UDALERRITAN
BEHEITI EGIN DU
BIZTANLERIAK**

**«NEURTEZINA DA
HERRI TTIKIEN
EKARPENA»**

ISABEL ELIZALDE, KONTSEILARIA

ren inguruan egindako lana» aipatu ditu. Lantzeko kasua ere mintzagai izan du: «urte batzuez estatuko 5.000 biztanle baino guttiago duten herrien artean jaiotze-tasarik haundiena lortu du, herriko hainbertze gaztek bertan bizitzea erabaki baitzuten. Eredugarria benetan».

Baina bertzelako kasuak ere badira eta beretako «gogorra da eskola edo herriko denda itxi eta herritarrek zerbitzuak eskuratzeko kotxea hartu behar dutela ikustea». Bertze batzuetan, «gazteek hirira alde egin dute, ikastera edo lanera, eta herrian adineko jendeak baino ez dira bizi eta hainbat etxe hutsik gelditu dira».

Bata zein bertzea «errealitate beraren bi aurpegiak» direla dio eta horren aitzinean, «herritarrek herri ttikietan bizitzeko baldintza egokiak sortzeko gai» izan beharko luketeela dio. Baina argi du: «hori ez da soilik administrazioaren ardura, herritarrena ere bada, gauzak aldatzeko gai garela sinetsi behar dugu».

Erronkak eta aukerak

Herri ttikiek aitzinera egiteko «gazteek bertan bizitzeko eta lan egiteko apustua egitea» garrantzitsua da Elizalderen irudiko: «orain dela hamarkada batzuk industrializazioak aldaketa haundiak sortu zituen Nafarroan, eta bereziki gure eskualdean. Fabriketan hainbertze lanpostu sortu ziren eta gainera, bizitza osorako». Egun, ordea, «eredu hori ez da baliagarria» kontseilariarentzat, eta «gazteek aukera berriak bilatu» behar dituztela dio: «lehen sektorean eta zerbitzuen alorrean. Egoera berrietara egokitzeko ekintzailletza bultzatu behar dugu». Bide beretik, herri ttikiek «alde on aunitz» dituztela dio: «herrietan bizitzeak dituen abantailak aintzat hartu eta herritarrok harro sentitu beharko genuke».

Bertzetik, «guttieneko zerbitzu publikoak bermatu» behar direla gaineratu du. «Baina

Biztanleria udalerriz udalerrri					
Herria	2000	2008	2017	2018	2008-2018 aldea
Arano	151	136	110	116	▼ %14,70
Arantza	655	640	623	614	▼ %4,07
Areso	293	282	261	275	▼ %2,48
Baztan	7.598	7.982	7.736	7.749	▼ %2,64
Beintza-Labaien	290	258	232	227	▼ %12,02
Bera	3.490	3.680	3.763	3.761	▲ %2,20
Bertizarana	657	653	591	607	▼ %7,04
Donamaria	387	429	434	431	▲ %0,47
Doneztebe	1.359	1.601	1.732	1.729	▲ %8,18
Elgorriaga	206	231	203	219	▼ %5,19
Eratsun	180	165	154	152	▼ %7,31
Etxalar	789	823	808	805	▼ %2,19
Ezkurra	232	176	154	150	▼ %14,77
Goizueta	903	800	717	705	▼ %11,88
Igantzi	588	614	626	622	▲ %1,30
Ituren	470	481	519	504	▲ %4,78
Leitza	2.939	2.876	2.856	2.898	▲ %0,76
Lesaka	2.681	2.779	2.737	2.735	▼ %1,58
Oiz	144	157	130	121	▼ %22,93
Saldias	151	120	119	116	▼ %3,33
Sara	2.193	2.262	2.596	2.667	▲ %21,61
Senpere	4.409	5.029	6.252	6.870	▲ %55,82
Sunbilla	688	647	675	671	▲ %3,71
Urdazubi	392	380	394	355	▼ %6,58
Urroz	208	193	185	180	▼ %6,73
Zubieta	307	314	308	316	▲ %0,64
Zugarramurdi	234	225	232	225	■ %0,00
GUZTIRA	32.594	33.933	35.147	35.820	35.820

ITURRIAK: GAINDEGIA, NAFARROAKO GOBERNUA, SARA ETA SENPEREKO HERRIKO ETXEA

hori lortzeko eskualde mailako ikuspegiaz ari behar dugu, bideragarriak izan daitezen». Zerbitzuen harira, «azken urteetan herri kozkorretan zentralizatu direla» onartu du: «agian bertze banaketamoduak bilatu beharko genituzke herrien arteko zerbitzuak osagarri bilakatzeko».

Hiriak vs herriak

Politikak hirietan egiten direla kritikatu izan zaie maiz po-

litikariei. Eta iritzi berekoa da Elizalde: «politikaren bilakae-rakazkeneko urteetan gizarteak izan duen bilakaerarekin bat egiten du. Orokorrean, gizartea bera gero eta urbanoagoa da. Maiz herri ttikietan bizi garenok aski bizimodu hiritarra izaten dugu eta sarritan politikarien erabakiak fenomeno horren lekuko dira».

Herri ttiki eta hirien artean desoreka haundia dagoen gal-detuta, berriz, honela dio:

«zenbaki haundiak kontuan hartzen baditugu segur aski bai, hau da, populazioa, jarduera ekonomikoa, zerbitzu publikoen eta pribatuen kontzentrazioa...». Baina «bertze adierazle batzuk» kontuan hartuta, «aldea ez da hain nabaria» kontseilariaren iritziz: «herri ttikiek eta landa eremuek gaur egun neurtu gabeko ekarpenak egiten dituzte, bizi ka-litateari eta ingurumenari lotuak». Bertzalde, deso →

→ reka aipatzeabaino «osa-garritasunaz» aritzea «egokia-go» omen da: «Nafarroako eskualdeen arteko oreka lortzeko ezinbertzekoa da hirien eta herrien arteko elkarlana bulkatzea, eredu jasangarria osatuz». Bide horretan kokatu du urtarril hondarrean Nafarroako Parlamentuak onartu zuen Nafarroako Udal Maparen erreforma: «lege horrekin udalerri gaitz gaitz gaitz bideratzen dira, tokiko mapa berrantolatzen da, eta finantzaketa-sistema berriaren oinarriak finkatzen dira, Foru Komunitateko lurralde-eremuen arteko desoreka murriztearren eta Nafarroako herri-tarrekiko zerbitzuen estaldura hobetzearren». Horrek guztiak «herri ttikiei lagunduko» die-lakoan dago.

Etorkizunera begira

Etorkizunaz galdetuta, 2016an Zerainen egin zen Etorkizuneko Herri Txikien inguruko nazioarteko kongresuan onartutako adierazpen ofiziala ekarri du gogora: «etengabe eta hagitz azkar aldatzen doan mundu eta gizarte globalizatuan, herri ttikiak arlo guztietan etengabe egokitu beharrean daude: kulturaren garapenean formakuntza jasoz, ekonomia berrietako aukeretan arreta jarritz, ohiko jarduerak egokitu-tuz (merkataritza, turismoa, teknologiak...)».

Herri ttikien geroa «neurri batean» nekazari eta abeltzainen etorkizunarekin lotua

«Zerbitzuak eta giro ona gakoak dira»

AITOR AZKARATE TOMASSONE ANIZTARRA

76 biztanlerekin, Baztango herriak ttikiena da Aniz, baina ez du bertze herri ttikien mar-txarik. Alderantziz, «2000. urteaz geroztik, jende gehi-go gelditzen ari gara herrian eta biztanleria igo egin da». Hala baieztatu digu Aitor Azkaratek.

80ko eta 90eko hamarkadetan biztanleriak beheiti egin zuen Anizen eta Azkarateren ustez, mugikortasuna izan zen arrazoietako bat: «herri-tar aunitz kanpora joan ziren lanera eta kanpoan gelditu ziren bizitzen». Denborarekin, ordea, «jendea hirietan bizitzea inongo pagotxa ez dela konturatu» dela uste du, «eta herrietan bertze modu bate-ra bizi daitekeela, baita mer-kexeago ere».

Berak herrian lan egin eta bizitzeko hautua egin zuen, eta halaxe bizi da gustura. «Alde on aunitz» ikusten dizkio Anizen bizitzeari: «hirietan baino behar gutiago daude,



lasaitasuna, ingurua, herriko giroa, kultura, ohiturak, harremanak, trafikorik ez...». Horiei guztiei «balio ematen» die, eta ez gutti. Gehiago ere bai: «hemen norbait bazara eta hiri batean ez; kide izatearen zentzuaz ari naiz».

Anizen bizitza dituen zailtasunez galdetuta, «mugikortasuna eta zerbitzu eskasia» aipatu ditu: «ez dago dendarik, ez medikurik eta ez eskolarik ere. Horrez gain, gehienek kanpoan lan egiten dute, eta egunero Aniztik mugitu behar dute». Baina horren

gainetik dago azken urteotan herritarrek egin duten hautua: «gazte gehienak herrian gelditu gara, eta nahiz eta azken urteotan ez den haurrik sortu, etorkizun ona ikusten diot herriari». Aitzinera egiteko erronken artean, «zerbitzuak izatea» eta «gure arteko harremana ona izatea» gakoak dira bere ustez. «Herrian eskola bat izatea garrantzitsua» izanen litzatekeelakoan dago, «nahiz eta zaila» ikusten duen. Gisa berean, bere irudiko, «bertakoen arteko harremana ona baldin bada, errazagoa izanen da herrian gelditzea eta hori ondorengo belaunaldi-ei transmititzea erronka nagusietako bat izan daiteke».

Bertzalde, etxe hutsak eta komunalen ordenantzak aipatu ditu: «gero eta etxe huts gehiago daudela ikusteak kezkatzen nau. Lege aldetik, arazo horri heldu behar zaio, eta etxe hutsak konpontzeko laguntzak eman beharko lirateke». Komunalen ordenantzen harira, «aldatzeko prozesuan» daudela kontatu digu: «jendeak hemen bizitzeko aukera baloratzeko komunala gaurkotu behar dira».


dagoela ere azaldu du kontseilariak: «mendeetan zehar nekazaritzari eta abeltzaintzari esker gure lurraldeak egokitu dira, eta hein handi batean, gaur egun ikusten di-

tugun paisaiak nekazaritzak eta abeltzaintzak eginak dira». Hainbat arrazoiengatik nekazaritza eta abeltzaintza mantendu beharrekoak direla azaldu du, «baina bereziki

lanpostuak sortu bidenabar, kalitateko elikagaiak ekoizten dituztelako, populazioa finkatzen dutelako eta lurraldea kudeatzen laguntzen dutelako».

BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Y: biztanleria kopurua
X: urtea



Datu iturria: BAZTANGO UDALA eta BERTZARANA UDALA

«Herri txiki eta bizia da gurea»

JAIONE ZABALO JUANTORENA EZKURRAKO ZINEGOTZIA

1960ko hamarkada arte 500 biztanleren bueltan ibili zen Ezkurra. Azken urteotako datuak, ordea, oso bestelakoak dira. 2008an 176 biztanle zituen eta hamar urte beranduago 150. Jaione Zabalo Ezkurra zinegotziaren arabera, «hainbat faktorerengatik» gertatu da hori: «Iana herritik kanpo izatea, gizartea nekazaritzatik industriara pasatu izana...». Hala ere, bestelako joera ere sumatua du: «gazteek bertan gelditzeko eta herriari bizia emateko saiakera egiten dute. Horren eredu dira turismo alorrean sortzen ari diren negoziak».



«GAZTEEK BERTAN
GELDITZEKO ETA
HERRIARI BIZIA
EMATEKO SAIAKERA
EGITEN DUTE»

Zabalorentzat «zerbitzu publikoak eskura ez izatea da Ezkurran bizitzeko zailtasunik handiena». Honela dio: «eskola eta medikua bezalako zerbitzuak eskuratzeko mugitu behar izaten dugu. Herrian ez dago esko-

larik eta ikasleek hori nabaritzen dute, eskola orduetaz gain, bidean pasatako denborak ondorioak izaten dituelako, adibidez, nekean». Zerbitzuek herria «aberastu» egiten dutela dio, eta horren adibide, jubilotekek eta ludotekek herrian duten «arrakasta» aipatu du. Medikua, berriz, «egun batzuetan» baino ez zaie joaten: «ez dugu noiz gaixotuko garen erabakitzen eta batzuetan falta sumatu izan dugu». Baina herri txikian bizitzearen alde onak ere nabarmendu ditu: «lasaitasuna, herritarren arteko harreman estuak, partaidetza... Herrian gutxi izanda gauzak aurrera ateratzeko guztion beharra dagoela eta guztiok elkarpenak egiteko modua badugula ikustea polita da». Berak argi du: «naturarekin kontaktua gustuko duen edozeinek ulertuko du mendian bertan bizitzea zeinen aberasgarria den».

2013an Gaindegiak egindako azterketaren arabera, oraingo martxarekin eta duten biztanleria txikia eta zahartuarekin, 21 herri luze gabe desagertzeko arriskua izanzen lukete. Tartean Ezkurra. Zabalok, ordea, «ez dakit ustea edo nahia den, baina ez dut horrela ikusten», dio. «Herri berezia da eta ez nuke desagertzen ikusi nahi». Bere ustez, «gure herriak eskaintzen dituen aukera haundiak erakusten jakin behar genuke. Ez litzateke ideia zoro eta arrakastatsu baten ondorioz, horrelako herriak berpizten diren lehen aldia izanzen. Beharbada hori da falta duguna». Etorkizuna bermatzeko «gazteak hemen gelditzea» garrantzitsua dela uste du baina horretarako «herriak zer bait aldatu» beharko lukeelakoan dago, «eskaintza haunditu, adibidez». Biztanleria mantentzea «zaila» ikusten badu ere, denaren gainetik zera azpimarratu du: «ez dut itxaropena galduta».

«Elkartuta herriak aurrera egingen du»

AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI ARANOKO ALKATEA

Mende hasieratik biztanleriak behera egin badu ere, gaur egun baino «okerrago» egonak direla kontatu digu Ainhoa Ansa alkatea. «Gazteen belaunaldi bat falta dugu, eta huts horrek beste belaunaldi baten hutsa ekarriko du hemendik urte batzuetara». Halere, egungo egoerari erreparatuz, kontent daude «ume dezente» dardelako. «Horien etorkizuna herrian bermatzea ezinbestekoa izanzen da Aranoren biziraupenerako».



Ez dute ez eskolarik ezta dendarik ere. Zerbitzuak «falta» dituzte: «Udala eta taberna baditugu, kontsultategia astean

«LAN ETA BIZITZEKO
MODUKO HERRIA
EGITEA IZANEN DA
HERRIAREN
ERRONKA»

behin, eta arraina eta ogia salduz gerturatzen den zerbitzua kenduko bagenu, herritarra kanpoan kontsumitzera derrigortua dago». Batzuk «ondoko herrietara izan dezakeen distantzia alde txar moduan har» deza-

keten arren, «hemen bizitzera ohituak gaudenok salto batean edozein lekutan egotera ohituak gaude». Are gehiago, «hiri kozkorretatik aparte» bizitzeak hainbat alde on ditu Ansarentzat: «lasaitasuna, ingurunearekin eta baserriarekin harremana, umeek jolasteko duten askatasuna eta gauzak nondik datozen eta zenbat kostatzen diren nola ikasten duten, pakea, zaratarik gabeko egunerokoa, kultura...».

Baliabide gutxi izanagatik, «herriko harremanak eta kultura mugimendua hauspotzeko» saiakerak egin dituzte azken urteotan Aranon. 2015ean herrigintza eskolak sortu zituzten, eta 2017 hondarrean, berriz, Maisuenea erabile-ra anitzeko txokoa ireki zuten. Aitortu digunez, «Maisuenearen eta herrigintza eskolen oinarrian, garai desberdinetan baina, helburu bera legoke: herriko jendeak elkar hartuta hainbat proiektu aurrera eramateko dinamika sortzea. Norberaren etxetik eta egunerokotik haratago, herrigintzan, bakoitzak dakien horretatik eragitea». Horrekin batera, «herrian beti proposamenen bat prestatzeko norbait» badela nabarmendu du aranoarrak. «Horri eutsi behar diogu, eta indarrak elkartuta bada hobe».

Etorkizunera begira, erronkak «lan eta bizitzeko moduko herria egitea» eta «herriak bere izaera mantentzeko, lehen sektorean dabilzan edo jardun nahiko luketen nekazari eta abeltzainen jarduera mantentzea» izanzen direla adierazi digu Ansa. Horretarako elkartzea garrantzitsua izanzen dela dio: «gure herria eraikitzeke elkartzen bagara, eta lan eta bizi bertan egiteko proposamenak lantzen eta bultzatzen baditugu, Aranok bizi-bizi aurrera egingen du».

Bertsolari txapelketako finala larunbatean Iruñean

Anaitasuna kiroldegian hasiko da 17:00etan eta eskualdeko sei bertsolari izanen dira oholtzan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 3an Atarrabian, martxoaren 9an Etxarri-Aranatzen eta martxoaren 10ean jendez gainezka egin zuen Lesakako Harriondoa Kultur Etxean burutu zituzten Nafarroako Bertsolari txapelketako finalaurrekoak. Horrenbertzez, osatu da 2019ko finalean ari tuko diren zortzi bertsolarien zerrenda. Hiru finalaurrekoetako irabazleei (Eneko Lazkoz, Xabier Terreros eta Joanes Illarregi, hurrenez hurren), saikapenaren arabera bertze bortz bertsolari gehitu zaizkie. Ondorioz, hauek izanen dira txapelaren bila jardungo dutenak: Eneko Lazkoz Martinez (Etxarri-Aranatz), Xabier Terreros Gartzia (Lesaka), Joanes Illarregi Marzol (Leitza), Eneko Fernandez Maritzalar (Lesaka), Julio Soto Ezkurdia (Gorriti), Xabat Illarregi Marzol (Leitza), Julen Zelaieta Iriarte (Bera) eta Xabi Maia Etxeberria (Elizondo). Alaitz Rekondo Ferrero lesakarrak beteko du gai-jartzaile lana eta Fernando Anbustegi Goñi elizondoarrak aurkezlearen.

Sarrerak aitzinetik eta egunean leihatilan

Martxoaren 23an jokatu da finala, 17:00etatik aitzinera Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Sarrerak salgai daude

www.bertsosarrerak.eus atarian, eta baita ondorengo salmenta puntuetan ere: Karrikiri denda (Iruñea), Fantxike denda (Elizondo), Okindegia (Lesaka), Maimur liburudenda (Leitza), Xapatero taberna (Etxarri-Aranatz) eta Olgarenea natur-denda (Lizarra). Larunbatean bertan, Anaitasunako leihatilak eta ateak 15:30ean irekiko dituzte. Kiroldegiko ostaturua saioaren aitzinetik bakarrik irekiko dela ere jakinarazi dute Nafarroako Bertsozale Elkartetik.

Bitartean, eskuragai duzue txapelketako informazio eguneratua, www.bertsozale.eus atarian.



Martxoaren 23ko finalean lehiatuko den zortzikotea. JOSEBA ZABALZA

Joxema Leitzak ezarriko du txapela

Joxema Leitza Razkinek (Arbitzu, 1971) izanen du larunbatean txapeldunari txapela janzteko ardura. Nafarroako Bertsozale Elkartek aitortza egin nahi dio gisa horretara 1995etik aitzinera bertsolari, gai-jartzaile, epaile, eragile eta bertso eskoletako irakasle izan denari. Joan den urtera arte, arlo batean ez bada bertzean, Bertsozale Elkartearen inguruan lanean aritu da Leitza eta hori eskertu nahi diote finalaren ondotik.



Joxema Leitzak, Bardoetan

NAFARROAKO TXAPEL.

FINALAURREKOEN PUNTUAZIOA	
1. Eneko LAZKOZ	399,0
2. Joanes ILLARREGI	375,5
3. Xabier TERREROS	360,5
4. Eneko FERNANDEZ	359,0
5. Julio SOTO	358,5
6. Xabat ILLARREGI	356,5
7. Julen ZELAIETA	355,5
8. Xabi MAIA	352,5
9. Aimar KARRIKA	349,0
10. Saioa ALKAIZA	344,5
11. Josu SANJURJO	341,0
12. Iker GOROSTERRAZU	338,0
13. Alazne UNTXALO	335,5
14. Saats KARASATORRE	335,0
15. Sarai ROBLES	326,5
16. Joana ZIGANDA	312,0
17. Diego RIANO	307,5
18. Iban GARRO	304,5

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinera

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinera

LABE ZAR

948 631 076 • BERA

Udalak klima eta energiarekin konpromisoa hartu du

2030. urterako CO2 isuriak %40 murriztu beharko ditu eta herritarrak ere proiektuan parte hartzera animatu nahi ditu

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 13an egindako osoko bilkuran energia eta klimaren inguruko alkateen ituna sinatzea erabaki zuen Udalak.

Europa mailako proiektu bat da hau, non udal gobernua berotze efektua sortzen duten gasak murrizteko konpromisoa hartzen duten, baita klima aldaketaren eta energia po-breziaren aurkakoak ere.

Proiektu honen baitan hartzen duen konpromisoak, 2030. urterako udalerrriak sortzen dituen CO2 isuriak %40 murriztea eskatzen du. Hau lortzeko efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera izanen dira oinarri. Bertze aldetik, klima aldaketak eraginen dituen aldaketei hobeiki erantzuteko neurriak hartzea ere aurreikusten da, hau da, erresilientzia hobetzea.

Egingen den planak isuriaren inbentario bat egitea aurreikusten du eta klima aldaketak eraginen dituen arriskuen ebaluazioa. Klima eta energia jasangarrien ekintza plan bat ere idatziko da bi urteko epean, non ekintza zehatzak agertu-



Klima aldaketari erantzun nahi zaio.

ko diren aipatutako helburuak lortzeko. Plan honi jarraipena egingen zaio bi urtetik behin guttienez, ebaluatzeko ekintza planean zehaztutakoak betetzen ari diren eta zer emaitza lortzen diren ikusteko.

Metodologia hau aitzinera eramateko Nafarroako Gobernuaren laguntza teknikoa izanen du Udalak. Lantalde bat sortuko da udalarduradun, Lursarea eta NELS sareko ordezkariekin, klima eta energiaren inguruan izandako esperientziak, ezagutzak eta baliabideak elkarbanatzeko.

Udaletik herritarrak animatu eta dei egin diete proiektu honetan parte hartzeko eta bilatzen diren helburuak lortzen laguntzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñude eta artzainak urteurrenak ospatzen

1929. urtean atera zen ñude eta artzainen lehen konpartsa eta 1979an berreskuratu zuten ohitura. Hortaz, 90. eta 40. urteurrenak ospatzeko ateraldi berezia izan zuten inauterietako igandean. Denera 70 bikote baino gehiago plantatu ziren, tartean argazkian ageri diren beteranoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haurrentzako ipuin-kontalaria ingelesez

Hilabeteko kultur eskaintza borobiltzeko, martxoaren 29an, ortziralean 18:00etan Alexia Papantchev ipuin-kontalaria izanen da herri liburutegian. 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzako emanaldia izanen da eta, bitxikeria moduan, ingelesez eskainiko du. Sarrera doan izanen da.



xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA



MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA



Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK



DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Euskal musika klasikoa entzungai Harriondoan

Josu Okiñena piano-jotzaile donostiarrak 'Xuxurlak' lana eskainiko du larunbatean Kultur Etxean (19:00)

AITOR AROTZENA

Josu Okiñena piano-jotzaile donostiarrak *Xuxurlak* izeneko lana eskainiko du hilaren 23an, larunbatean, 19:00etan Harriondo kultur etxean (sarrera: 8 euro) Munduko zenbait areto ospetsuetan (New York, Tokio, Montevideo, Txileko Santiago...) aurkeztu ondotik dator Lesakara.

Xuxurlak ikerketa lan zehatz baten fruitua da. Izan ere, Okiñena Musiken (Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia) irakasle izateaz gain, bilaketa eta zabaltze eginkizun

garrantzitsu bat ari da betetzen, hainbat euskal musika sortzaileen obrak berreskuratuz eta ezagutaraziz.

Oraingo *Xuxurla* horien artean, Aita Donostiaren zenbait sorkuntza entzuteko aukera izanen da, bereziki *Andante doloroso* haren azken lana, baita bertze egile garaikideenak ere. Hala nola, Tomas Garbizu, Felix Lavilla edo Paskual Aldabe lesakarrarenak batetik, eta XVIII. mendeko bertze zenbaitzurenak bertzetik, gehienak lehen aldiz argitaratuak.

Ikusmen urritasuna izanen du hizpide haurtzaroaren garapenerako jardunaldiak

A. AROTZENA

Bortzirietako haurtzaroaren garapenerako XIII. Jardunaldiak apirilaren 6an antolatu dituzte Osasun Etxeak eta Guztio elkartek. Ikusmen urritasuna izanen da aurtengo gaia. 09:00etan Bortzirietan haurtzarorako dauden baliabidee-

neta zerbitzuen gainbegirada eman ondotik, ikusmenaren garapenari buruzko solasaldia eskainiko du Cristina Aranzasti ONCEko oftalmologak eta ikusmenaren nahasmenak antzematea, baloratzea eta esku-hartzeari buruz Ostargi Optikak.

Sanferminetako kartel eta portada lehiaketarako lanak apirilaren 12ra arte

A. AROTZENA

Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak, herrian jaio edota bertan bizi direnentzat (250 euroko saria izanen du bakoitzak). Gibleko azala aukeratzeko, 6 urtetik 12ra

bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du (100 euroko saria). Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 12ko 13:00etan bukatuko da. Lanekin erakusketak bat osatuko da Kultura eta Turismo bulegoan apirilaren 18tik 28ra (biak barne).



AITOR AROTZENA

Ia 80 zakozar ibili dira inauterietan

Giro bikainean joan dira inauteriak. Igandean, ia 80 zakozar atera ziren karrikaz karrika, horietako aunitz emakumeak. Aitzinetik, ttikiek ere egin zuten ibilaldia. Fraindarrak eta Goitarrak ere ibili ziren baserriz baserri eta astelehenean karroza eta mozorro ikusgarriak plazaratu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumearen Eguna Irain eskolan

Herriko emakume taldeak antolatutako akelarre, kalejira eta emakatez eta Bortzirietako Emakumeen X. Mendi Itzuliaz gain, Emakumeen Eguna gogoratu zuten Irain eskola publikoan ere. Elkarretaratzea egin zuten ikasle, irakasle eta gurasoek, *Eskolan ere berdintasunaren alde* pankartarekin.

 **Hemen erabili**
kattagorria
LESKA
948 627 514
www.kattagorria.com

JAIÑE-GOXOTEGIA
 **Etxean egindako produktuak**
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

 **Manterola**
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
 Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Kantaldia eskainiko dute elizan martxoaren 30ean

Iparraldeko bi taldek eta herritarrek eskainiko dute emanaldia, pastoralaren inguruan sortutako giroa berreskuratzeko

IRUNE ELIZAGOIEN

Karmen Etxalarkoa pastoralaren inguruan sortu zen lagun giroa berreskuratzeko eta berriaz ere bertan parte hartutakoak elkartzeko kantaldia antolatu dute martxoaren hondar larunbaterako. Martxoaren 30ean, larunbat ilu-

nabarreko zortzietan emanen zaio hasiera kantaldiari elizan. Buhamiak, Jon Itzaina taldea eta Karmen Etxalarkoa pastoraletako kideak ariko dira kantuan eta sarrera doakoa izanen da.

Berriz ere giro politoan kantari ariko dira, beraz.

Karmen Etxalarkoa ibilbidearen proiektua lantzen

Karmen Etxalarkoa pastoralaren harian, Karmen bera bizi izan omen zen baserrira herritik ibilbidea prestatzeko proiektua martxan dago. Ibilbide hau prestatzeko proiektuan lagundu nahi duenak 699024861 telefonora deitu behar du.

'Smartphone'-ak erabiltzen ikasteko tailerra prestatzen

Helduek *smartphone*-ak erabiltzen ikasteko tailerra antolatu du Larraburuak. Lau egunetan emanen den sei orduko tailerra izanen da. Beharrezkoa izanen da gailua eramatea. Izena emateko: 948 635 166 edo 664 387 343ra deitu behar da martxoaren 29a baino lehen.



LANDAGAIN ESKOLA, IRUNE ELIZAGOIEN, AXUN ELIZALDE

Giro onean joan dira inauteriak

Eguraldia ere lagun, adio erran diete etxalartarrek 2019ko inauteri besteei. Ortzegun gizenean ttikienek egindako harat-honat eta antzerkiekin hasi eta astearte inaute eguneko karrozen desfilea bitartean gogotsu parte hartu zuten herritarrek aurreikusita zeuden ekitaldietan.



MIREN OLAETXEA

Martxoaren 8ko grebarekin bat

Martxoaren 8an goizez kotxe karabana egin zen, eguerdiko kontzentrazioaren abisua emanez. Kantu batekin eman zioten akabera plazako kontzentrazioari. 50 lagun inguru elkartu ziren eta ekitaldiari bukaera emateko, Herriko Ostatutik hasita izar formako giza katea osatu zuten.



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

San Juan Xar kooperatibak bilera egin du

1980an sortu zen kooperatiba, nekazarien bizimodua errazteko helburuz eta heldu den urtean 40. urteurrena beteko du

TTIPI-TTAPA

Urtero biltzen dira tenore honetan San Juan Xar kooperatibako bazkideak. Martxoaren 8ko ilunabarrean egin zuten aurtengo bilkura, Erretorebaitako behean. Joan den urteko kontu ematea izan zen gai nagusia eta alde horretatik konforme gelditu ziren bertaratutako bazkideak.

Bertze zenbait xehetasun jorratu ondotik, elkarrekin gozatzeko aukera izan zuten otordutxo batekin. 97 bazkide ditu gaur egun kooperatibak, gehienak herritarrak baina

kanpotar mordoxka bat ere bai.

1980an nekazarien bizimodua errazteko helburuarekin sortua, azken urteotan bere jardura egokitu behar izan du, nekazaritza bera aldatzen joan den heinean. Pentsuak, haziak, ongarriak... izan dira bere biltegiko oinarritzko produktuak, baina bertze aunitz ere badira gaur egun nekazarien eskura. Etxe partikular bateko behean dauka biltegia, Sarrola auzoan. 2020an berrogeigarren urteurrena beteko du kooperatibak.

Baratzondo Jubilatuko kideek ohiko batzarra

Martxoaren 16an egin zuten Baratzondo Jubilatuko kideek ohiko batzarra. 2018an antolatutako ekintzak, kontuak, bazkide kopurua... jorratu zituzten junta berri aitzinetik. Hilaren 9an, berriz, Arkupeakekoek bazkaria egin zuten, Lesakako bazkideekin batera.

Egur loteak banatzeko prestatzen ari dira

33 izan dira egur loteak eskatu dituzten herriko etxeak. Dagoeneko ikusten dira langileak suteak erretako inguruko zuhaitzak botatzen. Ipar haritza da gehiena eta laister hasiko dira egurra banatzen, dozena erdi inguru tonako mukurutan.

Aldabe eta Canabal bikain ari dira pilotan

Ez dute txapelik lortu baina hagitz itxura ona eman zuten Aldabe eta Canabal igantziar pilotari gazteek joan den martxoaren 10ean, Tolosako Beotibarren jokatu zen Euskal Herriko Kluben Arteko Pilota Txapelketako finalean. Oberenakoak Irurtzunen aurka lehiatu ziren. Olazabal aresoa-rra garaituz hasi zuen finaleko norgehiagoka Oian Canabal herritarrak, baina taldeko bertze bi partidak galdu egin zituzten. Joseba Aldabek, nahiz eta partida bikaina jokatu, pilotari hagitz gaztea izan zuen lagun (Unai Mata) eta ezin izan zuten lortu taldearentzat nahitanahiezkua zen garaipena. Ongayk (Irurtzun) ere Garcia (Oberena) menpean hartu zuen. Bai txapelketak baita finalak ere ikusmira handia eragin zuen.

Emakumeen egunean morez jantzi dira

Karrikak morez koloreztatu zituzten martxoaren 8an. Plazan bildu ziren eta aldarrikapenak herri osoan hedatu zituzten. Eskolako haurrek bertsoak kantatu zituzten eta emakumeen ikurra zintzilikatu zuten.



OSKAR TXOPERENA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Hirugarren mendi lasterketa gero eta hurbilago

Ekaitza Elkartek antolatutako kirol-proba martxoaren 31n izanen da

TTIPI-TTAPA

Dakizuen bezala, heldu den martxoaren 31n, mendi lasterketa antolatu du Ekaitza Elkartek. Ezaguna da Arantzako mendi zirkua, herria gainez gain inguratzen duen ibilbidea: plazatik abiatu eta Zepuru, Ilurdi, Ekaitza, Ibintza

eta Oilargata gainak igaro eta herria izanen du helmuga 20 kilometroko distantzia eta 1.300 metroko malda duen lasterkaldiak.

Egun horretan, dortsalak, 08:00etatik 09:00etara hartu beharko dituzte eta lasterketa 09:30ean abiatuko da plazatik.

Sari banaketa, berriz, 13:30ean egingen dute. Emakumezko eta gizonezkoetan, hiruna sari banatuko dituzte: lehenbizi-koentzat txapela eta 120 euro; bigarren ailegatzen direnentzat 80 euroko saria, eta hirugarren lasterkalariak 50na euro jasoko dituzte. Ekaitzatik pasatzen den lehenbiziko bortziritarri Xabier Zubieta saria emanen diote.

Izen-ematea

Gogoratu izen-ematea www.kirolprobak.comen egin daitekeela. Lerro hauek idazterakoan, ia 200 lagunek emana zuten izena, baina 250 lasterkari arte onartuko dituzte proban.

Sagardotegitik mendira eta menditik trikitixa jaialdira

Herritarrek ez dute aspertze-ko astirik izanen ondoko aste-hondarretan. Larunbat honetan, martxoak 23, sagardotegira ateraldia antolatu dute. Autobusez egingen dute joan-etorria. Heldu den asteburuan, berriz, mendi lasterketa egingen da eta apirilean sartuta, hilaren 6an, aurten laugarren urtez, trikitixa jaialdia. Aurten ere, herriko eta inguruko trikitilari eta panderojolez beteko da frontoia. 16:30ean hasiko da jaialdia eta berrikuntza gisa, Guraso Elkartek opilak eskainiko ditu.



TTIPI-TTAPA

Historiara pasatuko den eguna

Hainbat izan ziren martxoaren 8an Bilgune Feministak deitutako grebarekin bat egin edota karrikara atera ziren herritarrek. Horrez gain, elkarretaratze jendetsua egin zuten plazan, aldarri, bertso eta tertulia artean. Arratsaldean Elizondon egindako manifestazioan eta hilaren 10ean Lesakan egindako Emakumeen Mendi Itzulian ere herritar andanak parte hartu zuen.



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Hilabetea akitzeko Asteburu Kulturala antolatu dute

Azken igandean artisau feriaren eta gazta lehiaketaren hamabigarren edizioa eginen dute

MAIDER PETRIRENA

Ekitaldiz gainezka dator aurtun ere Asteburu Kulturala, hilabetea azken igandekoferiarekin borobilduko dena.

Martxoak 29, ortziralea

16:00etatik 19:30era haurrendako puzgarriak frontoian, Espectaculos Colorinen eskutik. 17:00etan haurrendako txokolate beroa. 19:00etan ipuin kontalaria Ulibeltzak Elkarteak. *Ameli eta xirrikitu*en *jostunek* izango da, Amaia Elizagoienaren eskutik. Ondoren afari autogestionatua.

Martxoak 30, larunbata

08:30ean Mendi-itzulia Zumalekura. Irteera plazatik izanen da. Arretxekobordatik atera nahi duenak 09:15ean bertan egon beharko du. Zumalekura ailegatzerakoan

denentzat gosaria izanen dute. (Fonda Ostatuan helduek 5 euro eta haurrek 3 ordaindu beharko dute). Goiz-arratsaldean, haurrendako puzgarriak frontoian. 16:00etatik 19:30era haurrendako puzgarriak frontoian, Espectaculos Colorinen eskutik. 17:00etan haurrendako merienda izanen da eta mus, txintxon eta partxis txapelketak Ulibeltzak Elkarteak. 21:30ean afaria Ariztigain kanpinean (apuntatzeko epea martxoaren 28a Fondan).

Martxoak 31, igandea

10:00etatik 14:00etara XII. gazta lehiaketa eta artisau feria. 11:30ean herriko haur dantzarien emanaldia. 16:30etan artisau feria. 19:00etan gazta lehiaketako sari-banaketa eta zara eta gazta erdien zozketak.



ITXASO ARRIETA

Emakumeak Donostiako Lilatonen

Martxoaren 10ean Donostian ospatu zen emakumeen zuzendutako Lilaton lasterketaren hogeita hamargarren edizioa, 30 urte berdintasunaren sustaia sendotuz goiburupen. Lasterketan herriko kirolari kuadrilla honek parte hartu zuen eta gustura bueltatu ziren.



KARMENTXU ANZIZAR

Emakumeen Eguneko afaria

Martxoaren 8ko Emakumeen Eguna zela eta, emakume kuadrilla honek afari eder batekin ospatu zuen. Bertan zaharrenak 87 urte zituen (Esperanza Anzizar Iriarte) eta gazteenak 25 urte (Iratxe Mendikoa Etxegarai). Denek ere giro ederrean borobildu zuten beraien eguna.

Nafarroako kirol jokoetan herriko bi judoka aritu dira

Nafarroako kirol jokoetan, martxoaren 9an Mendillorri alebin mailan aritu ziren herriko bi judoka: Hodei Gastesi laugarren izan zen (38 kiloz azpikoetan) eta Jon Ibarra bigarren (47 kiloz beheiti).



BIXENTE IBARRA IBARRA



UTZITAKO ARGAKIA

Genaro Gandara laguntzeagatik saritua

Pedro Lecumberri Sagües medikuari Merezimenduzko metopa eman zion Nafarroako Gobernuak, joan den urteko Xabieraldian Genaro Gandara Arretxea herriarri RCP=BBB maniohra egiteagatik. Ekitaldi honetara Genaro bera ere gonbidatu zuten, baita Jesus Etxaleku foruzaina ere.

Agoizko abesbatzak kontzertua eskainiko du apirilaren 6an

Larunbatean 20:00etan elizan izanen da emanaldia eta San Migel abesbatzaz gain bakarlariak ere izanen dira

MARGA ERDOZAIN

Jesusen zazpi hitzak gurutzean izenburpean, kontzertua eskainiko du Agoizko San Migel abesbatzak herrian. Apirilaren 6an, larunbatean, izanen da emanaldia, 20:00etan, elizan. Kontzertu hori Théodore Doboisek, Frantziako musikagile eta organo-joleak, idatzitako lana da eta Aitziber Martxuetaren zuzendaritzapean eskainiko dute.

Bakarlariak

Abesbatzaz gain, honako bakarlari hauek ariko dira: Idoia

Donazar eta Maite Lakabe, sopranoak; Eduardo Zubikoa, tenorea; eta Pablo Azpeitia, baritonoa. Jose Migel Agirrek organoa joko du.

Apirilaren 14an Agoitzen

Era berean, aipatzekoa da eliz kontzertu hori bera apirilaren 14an, hurrengo igandean, Agoitzen ere eskainiko dutela. Bai Doneztebeko emanaldia baita Agoizkoa ere, San Migel abesbatzarentzat entsegu bikainak izanen dira, ondotik abesbatza Alemaniara joanen baita.



M. ERDOZAIN

Ahaztuko ez dugun eguna

Martxoaren 8ak argazki, bideo, kanta eta ekimen anitz utzi dizkigu. Norberak bere balorazioa egingen du, baina indar metaketa kolektiboak joaldun hotsa du, ema-katearen itxura du, batukadako indarra eta erritmoa du, mandar usaina dario eta txalo zaparradaren erauntsia du.

Errigorako produktuak eskatzeko aukera ortziralera arte

M. ERDOZAIN

Bortz urte maite duguna elikatzen lelopean, martxoaren 22a arte, ortziralera arte, egin daitezke Errigorako eskaerak. On line –errigora.eus webgunean– edo tokian tokiko eskuorriak betez egin ahal izanen dira eskaerak. Produktuak bi

txandatan jasoko dira. Apirilaren 5etik 17ra olio eta kamisetak banatuko dituzte eta maiatzaren 22tik 31ra kontserbak eta arroza. Ordainketa produktuak jasotzean egin beharko da. Anima zaitzete eta segi dezagun maite duguna elikatzen!

'Dantza' filma ikusgai apirilaren 14an zineman

Udalaren eskutik, apirilaren 14an, igandean, 18:30ean, *Dantza* filma ikusteko aukera izanen da. Sarrera bi euro ordaindu beharko da eta emanalditik bildutako dirua gaitz arraroen ikerketan diharduen elkarte bat laguntzeko izanen da.

Irriterapia tailerra martxoaren 29an eta apirilean

Martxoaren 29an eta apirilaren 5ean eta 12an eskainiko den irriterapia tailerrera plaza libreak badaude oraindik. Begonia Indaberek bideratuko du sei orduko ikastaroa. Errolatuek 20 euro eta bertakoak ez direnek 25 ordaindu beharko dituzte.

2018an sortutakoei ongietorria

Ekhi, Luken, Alaia, Izaro, Mia, Shamira, Eki, Hegoa, Nerea, Eider, Nahia, Ibai, Elaia, Adur eta Ioana, ongi etorri. Zuhaitz, musu bat zuri eta familiakoei. Malkoak maitasun eta elkartasun oroigarri bilakatuta... agur.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sukaldaritza makrobiotikoa langai Saldiasen

Martxoaren 23an, apirilaren 13an, maiatzaren 11n eta ekainaren 1ean bilduko dira

TTIPI-TTAPA

Osasuntsu jaten ikasteko, sukaldaritza makrobiotikoari buruzko lau tailer praktiko eskainiko dituzte Saldiasen. Gehienez zortzi laguneko taldeak osatuko dira eta larunbatetan bilduko dira, 10:30etik 16:00etara bitarte. Saio bakoitzeko 55 euro ordaindu behar ko dira (bazkaria barne).

Lau saio praktiko

Saioak martxoaren 23an, heldu den larunbatean, hasiko dira eta lehendabiziko tailer-rean zereal integralak izanen dituzte hizpide. Apirilaren 13an, bigarren larunbatean, barazkiak izanen dituzte langai. Hirugarren saioa maiatzaren 11n izanen da eta le kaleei eta proteina begetalei buruz solastatuko dira. Azkenik, ekainaren 1ean plater



Saioak larunbatean hasiko dira.

orekatuak egiteko gakoak azalduko dituzte.

Tailer bakoitza beregaina, independentea, izanen da. Interesduna dutenek izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko ahinitz@hotmail.com helbide elektronikora mezu bat idatzi edo 652 75 08 17 telefonora deitu beharko dute.

Martxoaren 31n Urrozko udal-taldea osatuko dute

Udal hauteskundeak direla eta, heldu den igandean, martxoaren 31n, Urrozko udal-taldea osatzeko deialdia egin dute. Gehienez ere bortz laguneko taldeak aurkeztu ahal izanen dira eta taldekide guztiek herrian erroldatuak egon behar dute. Taldeak osatuak direlarik, zerrendak udaltxean aurkeztu beharko dira, partaideen izen-abizenak zehaztuz. Goizez, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara bitarte, aurkezteko aukera zabaldu dute.

Urroztarrak sagardotegian izan dira



JAIONE ZABALO

Inauteri egun paregabea Ezkurran

Martxoaren 9an, goizean, mozorroak jantzi eta etxez etxe ibili ziren Oihana eta Oihana trikitilariekin. Bazkalondan, gazteak baserrietan eta haurrak jokoetan ibili ziren. Gauean, 50 lagun inguruk Barranka jatetxean afaldu zuten, Mendiluze eta Zubeldiaren bertsoez gozatuz.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JAIONE ARIZTEGI

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, herriko gazteek Oianume sagardotegian bazkaldu zuten joan den martxoaren 9an. Autobusa bila joan zitzairen arte lagunarte ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

Plazaren mendeurrena dela eta bilera larunbatean

Herriko Ostatuan bilduko dira eta herritarrei bertaratzeko gonbidapena egin diete

FERMIN ETXEKOLONEA

Aurten 100 urte beteko ditu herriko plazak. Mendeurrena ospatzeko, herritar talde bati ekitaldiren bat antolatzea go- goratu zaio.

Artxiobotan bilatu, argazki zaharrak bildu, adinekoen oroitzapenak jaso eta plaza apaintzeko ideia ez ezik, jaialdiren bat antolatzeko asmoa ere badute: erakusketa, pilota partidak, antzinako plaza- jokoak, herri-bazkaria (bertsolari eta trikitilariekin) eta dantzaldia dira buruan darabiltzaten ekitaldiak.

Parte hartzeko deia

Asmoak helarazteko eta ideiak, aukerak edota iritziak partekatu ahal izateko martxoaren 23an, heldu den larunbatean, bilera antolatu dute. Herriko Ostatuan zehaztu dute hitzordua, ilunabarrean, 19:30ean.

Bilkurara joateko gonbidapena «interesa duten herritar guztiei, zaharrei, gazteei zein haurrei» luzatu nahi izan diete eta dagoeneko Udaleko ordezkariak ere horren berri eman diete. Bertan adostutakoaren berri hurrengo TTIPI-TTAPAN emanen da.

Errigora produktua hilaren 22a arte eska daitezke

Martxan da berriz ere Errigora. Olioia eta kontserbak ez ezik, aurten kamisetak ere eska daitezke eta kontserbetan lehendabizikoz arroza ere izanen da. Iker Gorosterrazuri edo Alix Gerekari egin behar zaio eskaera, martxoaren 22a baino lehen.

Joare kolpe sendoak emakumeen alde

Emakumeen Nazioarteko Egunean Doneztebeko elkarretaratzean eta emakatean ez ezik, Elizondoko manifestazioan ere izan ziren herriko sei joaldun. Arratsaldean, iturendar kuadrilla bat gehitu zitzairen. Doneztebeko eta Elizondoko argazkiak erran.eus atarian.

Naroa Elizalde ez du Master Cup txapelketan aurrera egiterik izan

FERMIN ETXEKOLONEA

Naroa Elizalde eta Araitx Eizagirrek, martxoaren 2an partida bat irabazi eta bestea galduta, ez zuten finalerdietara sailkatzea lortu.

Lehendabiziko partida Gaminde eta Bilbaoren aurka jokatu zuten eta 12-18 irabazte lortu zuten; bigarrena, berriz, Etxegaraireren eta Osesen kontra eta 15-18 galdu zuten, finalerdietatik kanpo geldituz.

Finalerdiak martxoaren 9an Legazpin jokatu ziren. Ruiz de Infante eta Mendizabal, Madalen Etxegarai eta Uxue Ose-



Elizalde ezkeretik hasita bigarrena.

sen (18-7) aurka lehiatu ziren eta; Ane Mendiburuk eta Laia Salsamendik Granado eta La-kuntzaren kontra jokatu zuten (18-11). Irabazleek finala hilaren 17an jokatzea zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederra izan dute emakume afarian

30 lagun inguru bildu ziren Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira martxoaren 9an herriko estalpean egindako afarian. Mahaiaren bueltan kontu-kontari aritu ondotik, zintzurak berotu eta gerriak mugiarazteko aukera izan zuten. Ederki pasatu zuten.

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

PINARELLO

ORBEA CONDA SCOTT BH GIANT LIV MERIDA

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Malerrekako Kultur Bira Iturenera eta Eratsunera dator

Hilaren 23an antzerkia eta musika izanen dute Iturenen eta 30ean ipuin-kontalaria, antzerkia eta kantuak Eratsunen

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, eta Ituren eta Eratsungo udalek Malerrekako VII. Kultur Bira antolatu dute. 2019ko edizio honetan ere programazio erakargarri bat eskaini nahi izan diete Malerrekako bizilagunei. Kultur Bira martxora aldatu da aurten eta bi egunez egingen da, hilaren 23an eta 30ean, Iturenen eta Eratsunen, hurrenez hurren. Emanaldi guztiak doakoak izanen dira.

Martxoaren 23an Iturenen

Martxoaren 23an, larunbatean 19:30an Udaletxeko ganbaran Mikel Martinez aktoreak *Tabernaria*. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña bakarriketa eskainiko du. Taberna baterako bakarriketa da. Tabernariak bere bezeroak konbokatu ditu, kaña bat ongi botatzen erakusteko. Aitzakia bat da, bere kezkak, arrangurak, ilusioak eta desio frustratuak azaleratzeko. Formari dagokionez, istorioa atzetik aurrera kontatzen da. Hau ez da kapritxo estetiko bat, na-

razioaren muinarekin lotuta baitago: denbora eta ekonomia eredu berrien gatazka. 20:30ean, Palenka&Julian musika hirukoteak kontzertua eskainiko du leku berean. Palenka 2004an Hendaian sortutako taldea da, eta Pavel Polasek eslobakiarrak eta Lenka Polaskova txekiarrak osatzen dute. 2016an Julian Cobzaru musikari errumaniarra batu zen taldera. Sortzen duten musikan nahasketa berezia sortu da, musika eslabiarra, balkanikoa, swing-a, runba...

Eratsunen hilaren 30ean

Martxoaren 30ean, larunbatean 11:00etan Eratsungo eskolan izanen da Pello Añorga irakasle, ipuin kontalaria eta idazle ezaguna. 1986an buru-belarri murgildu zen Añorga

BAKARRIZKETAK, MUSIKA ETA IPUIN KONTALARIAK IZANEN DITUZTE



Mikel Martinez, Palenka&Julian, Pello Añorga, Barry Manley eta Malerreka kantuz.

ipuin-kontaktetan, lan hori haurrentzako liburuen idazle lanarekin uztartuz. Ipuinak kontatzeko iturriak aipatzeko ondarea, ipuin klasikoak, munduko mitologia, liburuak eta bizipenak eta eguneroko albisteak nabarmentzen ditu. 13:00etan Malerreka kantuz egingen da Eratsungo karriketan. 18:00etan, *Bakarriketa* bakarriketa eskainiko du Barry Manley irlandarrak.

Barry Manley irlandarrak urte asko daramatza Euskal Herrian. Hizkuntzak betidanik gustatu izan zaizkio eta bertan geratzea erabaki zuenean euskara ikasi behar zuela argi ikusi zuen, baita ederki ikasi ere. Manleyk, umorea eta musika lagun, ikuskizun ederra eskainiko du Eratsunen.

Kultur Bira mahaiaren inguruan akitzeko, 21:00etan afari autogestionatua egingen dute Elitxen.

Fruta kanpainaren baitan hitzaldia eskainiko du erizainak Iturengo eskolan

ARKAITZ MINDEGIA ITUREN

Otsail bukaeratik aitzinera Iturengo eskolako haurrak ere Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen Fruta Kanpainan murgildurik daude. Astelehenetan eta asteazkenetan izan ezik, gainerako egunetan Haur Hezkuntzakoetatik hasi eta

Lehen Hezkuntzako 2.mailako ikasleak bitarte, frutaz gozatzeaz gain obesitatea ekiditeko kanpainan sarturik daude. Honen harira, kanpainarekin segituz, Lehen Hezkuntzako haurrentzat pediatriako erizainak hitzaldia emanen du martxoaren 27an eskolan.



Fruta kanpainan murgildurik daude ikastetxeko ttikienak. ARTXIBOKOA

Haurrentzako bertso-eskola martxan

Bederatzi urtetik goitiko gaztetxoei bideratutako eskola da eta ortzegunetan 16:00etatik 17:00etara eskolan bilduko dira

ARKAITZ MINDEGIA

Gaztetxoak bertsolaritzan sartzeko helburuz, berriki, haurrentzako bertso-eskola martxan paratu dute herrian. Ortzegunetan Pulunpa eskolan 16:00etatik 17:00etara Iker Gorosterrazuren gidaritzapean biltzen hasiak dira. Bederatzi urtetik goitiko gaztetxoek parte har dezakete eta horretarako bertara joatea aski da.

Martxoaren 27an hitzaldia

Bertso-eskolako saioak ez dira eskolan dituzten hitzordu bakarrak. Izan ere, otsailean



Gorosterrazuk gidatuko ditu saioak.

abiatu zuten fruta eta barazki kanpainaren harira, martxoaren 27an, heldu den asteazkenean, pediatria-zerbitzuko erizainaren eskutik hitzaldia izanen dute.



UTZITAKOAK

Gazte, haur eta helduek grebarekin bat

Herritarrek martxoaren 8ko grebarekin bat egin zuten. Herritar aunitz Doneztebeko elkarretaratzera joan ziren eta Elizondon joareak jantzi zituzten. Alazne Untxalok bertsoak ere bota zituen. Pulunpa eskolako irakasleen %60ak greba egin zuen, zaintza lanak gizonen esku utziz.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera **finantziazioa**,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Bigarren seihi-lekorako bidaiak prest

Mallorca, Italia, Pirinioak eta Benidorm bisitatzea aurreikusi du erretiratuen elkarteak

F. ETXEBERRIA

Martxoaren 12an, elkarteko zuzendaritza batzordeak batzarra egin zuen. Bertan, bertzeak bertze, bigarren seihi-lekorako aurreikusitako bidaiak izan zituzten mintzagai.

Bidaia-agentziei martxoaren 2rako proiektuak prestatzeko eskaera egin zieten eta bilkuran txosten horiek aztertze-ko parada izan zuten.

Helmugak prest

Helmugak zehaztuta dituzte. Irailaren 2tik 9ra Mallorcara joanen dira; irailaren 18tik 25era (edo inguru horretan) Italiara (Milan, Venezia, Dolomitak...); urriaren 1etik 4ra Pirinioetara; eta 1etik 13ra Benidormera. Pirinioetara eta Italiara egin beharreko bidaiak izan ziren bilkuran bereziki jorratu zituztenak.

Urriaren 1etik 4ra Pirinioetan Pirinioetako bidaiari dagokionez, bazkide guztiei begira antolatua dela nabarmendu zuten, eta mendizaleez gain, elkarteko gainerako kideek ere parte har dezaketela oroitarazi zuten.

Lehendabiziko egunean, teleferikoan Artousterara eta hortik presara trenaz joatea aurreikusi dute. Formigalen edo Panticosan bazkaldu eta Torlara joanen dira. Bertan bi gau pasako dituzte.

Hurrengo egunean Ordesako belardiko aparkalekura

PIRINIOETAKO BIDAIA EZ DA MENDIZALEENTZAT BAKARRIK



Italian Dolomitak eta ingurua ezagutuko dituzte. NOMADATREK

autobusez joanen dira. Ingu-ruko ur-jauziak ikusteko edo goititzeko aukera izanen dute. Aparkalekuan bertan jatetxea eta ostatua ere izanen da; eta, norberak nahi duena egiteko aukera izanen du. Eguerdian, bazkaltzeko, Torlara itzuliko dira. Arratsaldean Ainsa, Erdi Aroko herrixka bat, bisitatuko dute eta gidari baten laguntzaz interesgune nagusiak ezagutuko dituzte.

Torlan afaldu eta atsedean hartu ondotik, biharamun goizean, Jacara joanen dira. Alde zaharra ezagutzeko edota gotorlekuan paseatzeko

bizpahiru ordu izanen dituzte. Bertan bazkaldu ondotik, arratsalde erdian etxera buelta egingen dute.

Irailaren 18tik 25era Italian

Zalantzarik gabe, bidaia garrantzitsuena Italiakoa izanen da. Izan ere, bertako interesgune nagusiak ezagutzeko aukera izanen dute. Bertzeak bertze, Dolomitak eta inguruko gailur, aintzira eta herriak ezagutu ahal izanen dituzte.

Zuzendaritza batzordeak horren guztiaren berri aitzinerago emanen duela jakinarazi du.



F. ETXEBERRIA

Elkarteko 112 lagun Xabierren izan dira

Martxoaren 5ean 112 bazkide Xabierko gazteluan izan ziren. Meza aditu ondotik, bertan bazkaldu zuten. Arratsaldean, dantzarako tartea izan zuten. Nahi izan zutenek 17:00etako mezara joateko aukera izan zuten. Gorabeheraren bat izan bazuten ere, zorionez ez zen larria izan eta egun ederra pasa zuten.

IRAKASLEEI ESKERRIK ASKO



ESKOLA EMAN ZENIDAN, ETA NAIZENA IZATEN LAGUNDU ERE BAI.

Irakasleei esker,
eskola-gaiak ikastea baino gehiago da Hezkuntza.
Nor zaren deskubritzea ere bada.



Hemen istorio osoa deskubritu.
www.educacion.navarra.es



@educacion_na
/hezkuntzaNAeducacion

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



Elizondoko manifestazioan Baztan, Bortziriak eta Malerrekatik joandako jendetza bildu zen. ONDIKOL

Karrikak morez janzten dituen aldarria

Eskualdeko ehunka emakume irten dira kalera martxoaren 8ko ekitaldietan parte hartzera

TTIPI-TTAPA ESKUALDEA

Iazkoa historikoa izan bazen, aurtengoa ez da guttiagorako izan; emakumeek planto egin eta eskualdeko karrikak hartu zituzten martxoaren 8an.

Goizean goizetik mugitu ziren, gazteak eta helduak; burrunbada ozenak ernatu zituen bazterrak eta eguna argitu orduko mantalak zintzilik agertu ziren hainbat etxetako balkoitan. Euskal Herriko Bilgune Ferministak deitutako egun osoko plantoarekin bat egin zuten aunitzek eta gauera arte luzatu zuten aldarrikapena eta besta.

Hainbat lantegi eta etxetan, emakumeen greba babestuz, gizonetako hartu zuten euren gain ardura.

Ekitaldirik ez zen falta izan: elkarretaratzeak egin ziren herri gehienetan, manifestazio jendetsuak Elizondon eta Lei-

tzan, joareak jantzi zituzten Ituren eta Zubietako emakumeek, emakateak osatu zituzten han eta hemen, emakumezkoen tertuliak izan ziren, bertsoak...

Eguneko kolore moreak izan zuen umore eta bestatik ere, eta gizonetako prestatutako bazkariak, afari autogestionatuak, jolasak, dantzak, guatekea... lagunarteko giroan ederki pasatzeko aukera izan zuten.

X. Mendi Itzulia Bortzirietan

Ohiturarekin segituz, martxoaren 10ean, Bortzirietako Emakumezkoen Mendi Itzulia egin zuten. Hamargarren edizioa izan zen aurtengoa eta ehun bat mendizalek osatu zuten Lesakako plazatik abiatu eta Frainera arteko ibilbidea. Ondotik, hogeita hamar bat emakume Kasinon bazkaldu zuten.



Gazte eta helduak elkarrekin atera ziren karrikara. E.JIRAOLA



Joareak dantzarazi zituzten Zubietan eta Iturengo emakumeek. N.BAZTERRIKA



Bortziritako X.Mendi Itzulia egin zuten martxoaren 10ean. UTZITAKO ARGAZKIA



Leitzako manifestazioa. E.IRAOLA



Giro bikaina izan zuten Goizuetako emakume afarian. F.LOIARTE



Emakatea osatu zuten Donezteben. N.BAZTERRIKA



Bertsoak izan ziren Arantzan G.PIKABEA



Lesakako Emakatea. A.AROTZENA



Ttipi-Ttapak hamabostero zozketak ere egiten ditu txartela dutenen artean.

Ttipi Txartel berriak hartuko dituzte 2.200 bat lagunek

66 denda eta zerbitzuek eskaintzen dituzten deskontuei buruzko informazio zehatza ageri da banatu den eskuorrian

TTIPI-TTAPA

Gutun-azal berdearen barnean, Ttipi Txartel berriaz gain, erosketak egiterakoan deskontuak eskaintzen dituzten 66 komertzioen zerrenda eta 2018ko Errenta Aitorpenerako balio duen ziurtagiria ere hartuko dute egunotan etxeko postontzian 2.200 bat lagunek. Txartel berriak urdin kolorekoak dira eta erabiltzailearen datuekin pertsonalizatuak daude. Orain artekoak bezala, txartel hauek ere bi urteko balioa izanen dute, 2021eko martxoaren 31ra bitarte, hain zuzen.

Ttipi Txartela 1998an sortu zuen TTIPI-TTAPA Fundazioak, bere bitartez euskara, tokiko ekonomia eta TTIPI-TTAPAREN arteko aliantzak gorpuztu eta biziberritzeko baliagarri izanen zelakoan. Egitasmoak hasieratik harrera ona izan zuen eta, geroztik, urtetik urtera, handitu eta zabaltu egin da komunitatea. Gaur egun aliantza honek berebiziko garrantzia du TTIPI-TTAPARENTZAT eta arnasa ematen dio Fundazioak dituen jarduerak eta egitasmo guztiei.

Deskontuak

Deskontuei buruzko informazio zehatza ageri da txartelarekin batera banatu den eskuorrian. 66 denda eta zerbitzuren informazioa ageri da eskuorrian, eskualdeka eta arloaren arabera ordenatuak, eta bakoitzak deskontua zertan den, zenbatekoa eta dituen baldintzak erakusten ditu.

Hamabostero zozketak

Txarteldunak abantaila gehiago ere baditu. Hamabostero, TTIPI-TTAPARI laguntza ematen dioten enpresa, erakunde, elkarte eta argitaletxeek emandako produktuak zozketatzen dira txarteldunen artean. Zozketan sartzeko ez da deitu behar, aleatorioki egiten baita txarteldun guztien artean. Zozketa hauen inguruko informazio zehatza argitaratzen du aldiro TTIPI-TTAPAK eta, informazio gehiago nahi duenak www.ttipitxartela.info webgunea bisita dezake.

Ttipi Txartela izateko 50 euroko kuota ordaintzen da urtean eta dituen abantailen artean sartua da aldizkaria hamabostero etxera bidaltzea.

Arrantza denboraldia apirilaren 14tik uztailaren 31ra izanen da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako kontseilariak Nafarroan 2019ko arrantza baldintzak jasotzen dituen foru legea onartu du.


Amuarraina

2019rako baimenak guttitiu egingen dira aitzineko urtearekin alderatuz, 12.947 izanen dira 2018ko 17.271 baimenekin alderatuz. Baimenen jaitzierak Bidasoa eta Ega-Urederra eremuari eraginen dio, ez baita konpensatua izanen Arakil-Larraun, Arga-Ultzama eta Irati-Erro eremuetan izan den igoera arinarekin.

Arrantzale bakoitzeko baimenak iazko berdinak izanen dira. Hala, 2019an pertsona bakoitzak 12 baimen eskatu ahal izanen ditu amuarrain arrantzarako. Arrantzatzeko kopurua eguneko pertsonako bi amuarrainekoa izanen da, eta guttieneko neurria 23 cm.

Izokina

Izokinen arrantzarako baimenen sistema mantenduko da,



60 izokin arrantza daitezke.

denboraldi bakoitzeko gehienez 60 arrantza daitezke.

Denboraldia apirilaren 14an hasiko da eta arrantza-debekualdia maiatzaren 27tik ekainaren 13ra zehaztuko da (bi egunak barne), hala denboraldi honek izokinaren arrantzarako egun balioudun berdinak izanen ditu. Uztailaren 31n bukatuko da edo lehenago, 60. izokina arrantzatzen den egunean. Bertzalde, Las Nazasen, ur emaria egokia ez denean, arrantza debekua kendu da.

Berrikuntza nagusien artean arrantzatutako izokinak Departamentuaren eskuetan uzteko aukera jaso da, *Izan zaitez Bidasoako izokinaren babesle* kanpainaren baitan.

'Euskaraz Blai!' udalekuak eskainiko dituzte Beintza eta Arantzako aterpeetan

TTIPI-TTAPA

Abian da Arantzako Aterpeak eta Beintzako Aterpetxeak antolatuz, eta Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoaren laguntzaz, gaztetxoaren artean euskararen erabilpena sustertzeko *Euskaraz Blai 2019* udalekuen kanpaina. Helburu nagusia euskara aisialdian ere erabiltzea da. 600 plaza baino gehiago eskainiko dituzte bi aterpetxeetan banaturik, 2007-2010 urteetan jaiotakoak multzo batean eta 2004-2006 urteetan sortutakoak bertze batean.

Udaleku ibiltaria

Kontrabandisten Bidea udaleku ibiltaria ere eskainiko zaie 14-17 urtekoei. Ibilaldian Arrixtulo (Oiartzun), Arantzako Aterpea eta Beintzako Aterpetxea elkartuko dituzte, eta naturarekin lotutako hainbat jarduerak ere prestatu dituzte. Historiaz betetako eskaintza honetarako 80 plaza daude *Euskaraz Blai* udalekuetan zein udaleku ibiltarian izena emateko epea zabalik da maiatzaren 12ra bitarte. Informazio gehiago www.euskarazblai-udalekuak.com webgunean.

«Etxebizitza ahalik eta hobekien bermatu behar den eskubidea da»

JOSE M^a AIERDI NASUVINSAKO ZUZENDARIA

Nasuvinsak Donezteben duen bulegoak izan duen bilakaeraz aritu da Nasuvinsako zuzendaria. Bere hitzetan, «hasierako zerbitzuez gain, gehiago eskaintzeko lanean» ari dira

«Aldaketa prozesuan gaude». Halaxe aitortu du Jose Mari Aierdi Nasuvinsako zuzendaria. Kontatu digunez, «Nasuvinsak Donezteben duen bulegoa bereziki etxebizitza kontuekin lotutako gaien inguruan eta eskualdeko udalei hirigintzako espedienteekin laguntza teknikoa eskaintzen aritu izan da». Azken aldian, ordea, «aipatutako zerbitzu horiez gainera, gehiago eskaintzeko» lanean ari dira.

Baztan-Bidasoaldeko zerbitzuak izan duen bilakaera aipatzekoa da: «2010 eta 2011 urteetan, urte bakoitzean 150-200 espediente tramitatu ziren Doneztebetik, sei milioi eurotik goitiko inbertsioak egin eta 1.100-1.600 euro inguruko laguntzak jaso ziren». 2014-2015 urteetan, ordea, «zaharberritzeko eskaerak nabarmen egin zuten beheiti». Halaxe diote datuek: «39 espediente baino ez ziren aurkeztu». Baina 2017az geroztik egoera aldatzen ari omen da «eta 2018an urrats garrantzitsua» egin omen zuen: «iaz 158 etxebizitzetan esku hartu zuen Doneztebeko bulegoak, horietan hiru milioi euroko inbertsioa egin zen eta 800.000 euroko diru-laguntzak jaso ziren». Aierdiren irudiko, Baztan-Bidasoaldekoa «Nafarroan orokorrean dagoen joera bezalakoa» omen da: «bere garaian, etxebizitza politika proiektu handiekin lotuta zegoen, hau da, Gendulain



Jose M^a Aierdi Nasuvinsako zuzendaria. UTZITAKOIA

edo gisako egitasmo handiekin». Aitzitik, bere hitzetan, «gaur egun, jendeak nahiago du etxebizitzak zaharberritu, eta ohiko etxebizitza baldintza egokietan jarri, eroso eta kontsumo energetiko baxuko bizitza eginez». Horrekin batera, aloikaruen politikak ere indarra hartu duela azaldu du.

Iruñeritik Nafarroa osora

«2016an etxebizitza politikak ezin zirela Iruñerrian soilik

«ZAHARBERRITZEKO 158 ESKAERA TRAMITATU ZIREN IAZ DONEZTEBEN»

garatu pentsatu genuen, eta Nasuvinsak eskaintzen zituen zerbitzuak zabaltzeari ekin genion», dio Aierdik. Bide horretan, eskualdeko hainbat udal eta jabeekin sinatutako hitzarmenak aipatu ditu: «2016an Baztango Udala Alokairuen Poltsan sartu zen». Horri esker, «egun Alokairu Poltsan dauden 661 etxebizitzetako batzuk Elizondokoak dira». Gisa bertsuan, «orain, Oronoz-Mugairin bertze bortz

«BERAN ZORTZI ETXEBIZITZA EGITEKO ASMOA DUGU»

etxebizitza birgaitzen ari gara, alokatzeko izanen direnak». Pixkan-pixkan garatzeko asmoa argia da: «Beran ere kontsumo murrizteko zortzi etxebizitza egiteko proiektua eta Iruritan eraikitzen hasiak diren etxebizitzak erosteko aukerak ere eskuartean ditugu».

Alokairu eskaerak

Etxebizitzaren politiketan «errotiko aldaketa» gertatu dela nabarmendu du Aierdik, eta aldaketa horien ardatzetan egin dute bidea: «garai batean etxebizitzaren salerosketa zen nagusi; gaur, berriz, alokairuko eskaerak areagotu dira. Datuak dira lekuko: egun Nafarroan 7.000 lagunek alokairuan hartzeko etxebizitza eskatzen dute eta 2.000 baino ez dira erosi nahi dutenak. Garai batean aurkakoa gertatzen zen». Eskaerari erantzunez, udalenak diren etxeekin zaharberritzeko planak egin eta errentan emateko etxebizitzak zaharberritzeko aukerak aztertzen hasiak dira: «momentuz Pirinio inguruan eta Uxuen ari gara. Udalek baldintza txarretan dauden eta alokatu ezin dituzten etxebizitzak utzi dizkigute, horiek egokitu eta alokatzeko. Beran edo Garraldan ere halako zerbitu egiteko asmoa dugu». Nasuvinsak, Udal edo etxejabeekin hitzarmenak sinatzean, bi konpromiso hartu ohi ditu: «batetik, legeak ezartzen duen epean alokairua bermatzen die, alokatu ezean, horri dagokion kostua bere gain hartuz; eta bertzetik, etxejabeek behar bezala itzultzea hitzartzen die».

Jasangarritasuna helburu

Helburua ez da nolanahiko etxebizitzak egitea. Hortaz, egun Lursarea agentziak «kontsumoa murrizteko eta klima aldaketaren aurkako etxebizitzak eraiki nahi ditu, *passivehouse*en tankerakoak». Etxebizitza «eskubide gisa ulertzen dugu eta kostuak murriztuz, baldintza egokietan bizitzeko eskubidea berma daiteke».



Aurkezpenean, Herrerekin batera, Mikel Zabaleta eta Unai Loiarde izan ziren.

Ibero dorreko zaharberritze-lanak aurkeztu dituzte

Nafarroan kontserbatzen den Erdi Aroko industria-guneen adibideetako bat da

JM BARRIOLA

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerak martxoaren 1ean aurkeztu zuen Iberoko Erdi Aroko dorre zaharberritua, Leitzako eta Goizuetako Mikel Zabaleta eta Unai Loiarde alkateekin batera. Iberoko parajea kontserbatzea, mantentzea eta hedatzea ber-

matzeko beharrezko jarduerak garatu dituzte: bertara eta ingurunera joateko sarbidea erraztu dute, bidexka eta aparkalekuaren bitartez; alboko baserria kontserbatu dute; eta Erdi Aroko burdinolako hondakinei balioa eman diete. Lanek 584.975,03 euroko kostua izan dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Parte-hartze handia M8ko ekitaldietan

Kale, plaza eta aretoak beteta; horixe izan da, martxoaren 8ak utzi duen argazkia. *Neskatoak* dokumentalaren emanaldia, burrunbada, elkarretaratzea, bazkaria, dantza ekuatoriarrak, manifestazioa eta guateke feminista izan ziren eguneko osagaiak. Parte-hartze handia izan zen guztietan.

XLI. Herri Kroserako izen-ematea zabalik da dagoeneko

JM BARRIOLA

Aurrera Kirol Elkartearen eskutik, Leitzako XLI. Herri Krosera izanen dute apirilaren 13an, larunbatean.

Hiru kategoriatan egingen dute korrika: benjaminak, gaztetxoak eta maila absolutua. Azken horiek izena eman beharko dute, www.kronoak.com webgunearen bidez. Aurretik izena emanez gero 10 euro ordaindu behar dituzte (Aurrerako bazkide direnek, berriz, 8). Apirilaren 13an ere izena eman ahal izanen dute, Aurrera Kirol Elkartearen egoi-



Joan den urteko kroseran. ARTXIBOKOA

tzan 15:30etik 17:00etara. Egunean bertan bazkide ez direnek 15 euro eta bazkide direnek 10 ordaindu beharko dituzte.




UTZITAKO ARGAZKIA

Finalerdietan ez dute aurrera egin

Iera Agirrek eta Olatz Arrizabalagak ez zuten finalerako txartela eskuratzerik izan, Patri Espinar eta Mirian Arrillagaren aurka 18-17 galdu zuten finalerdietan. Garai eta Etxanizek Espinar eta Arrillagaren kontrako finala martxoaren 17an jokatzekoa zuten.

Erosle zein saltzaileak gustura stock azokarekin

Kaxkabeltza Elkarteko sei komertzioek jarri zuten postua martxoko bigarren asteburuan Amazabal pilotalekuan egindako azokan. Larunbat arratsaldean bildu zen jende gehien eta dendariak gustura daude salmentekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrigunean hainbat hobekuntza egin ditu Udalak

Herritarren segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko hainbat hobekuntza egin ditu Udalak herriguneko auzoetan. Errepideko zuloak konpondu, trafiko seinaleak berritu eta margotu eta Arekozubi ondoko aparkaleku handia ere txukundu dute. Ikastetxe inguruko trafikoa mantsotu eta segurtasuna hobetzeko zebra-bide jasoa ere egin dute eta abiadura kontrolatzeko tresna jarri. Horretaz gain, informazio panel berriak ere jarri dituzte aurrekoak ordezkatzuz.

Anikoteko ikastaroetako izen-ematea zabalik

Anikote udal kiroldegia apiriletik ekainera bitarte eskainiko dituen hiruhilabeteko ikastaroetako izen-emateko epea ireki du. Ikastaro hipopresiboak, autodefentsa ikastaroa eta gazte training eskainiko dituzte. Ikastaro guztiak, 16 urtetik gorakoentzako izanen dira. Izena eman nahi dutenek fitxa bat bete eta kiroldegiko harreran aurkeztu edo e-mailez bidali beharko dute. Taldeak martxoaren 26an osatuko dira, izena emateko fitxak jasotako ordenaren arabera.

'Erradikalak gara' ikuskizuna Leitza martxoaren 31n

Beatriz Egizabalen eta Ana Labakaren eskutik, *Erradikalak gara* ikuskizunaz gozatze-ko aukera izanen dute Ateka-beltz gatzetxean. Martxoaren 31n, azken igandean, zehaztu dute hitzordua, 19:00etan eta sarrerak bost eurotan jarriko dituzte salgai.

Jabier Eskubiri omenaldia eskaini diote

Otsailaren 28an hil zen herriko txistulari eta Aurrerako kidea. 40 urtez herriko txistulari taldean ibili izan zen pestak girotuz. Aurrerako dantzariak eta hainbat herritar izan ziren omenaldian eta txistu doinurik ere ez zen falta izan.



AURRERA KE



Marcos AZCARATE ELIZONDO, Doneztebe >

«Jasotzen dugun metodologia askoz ere praktikoagoa da»

Marcos Azcarate Elizondo doneztebarra Informatiko Ingeniaritza graduko 3. maila egiten ari da Mondragon Unibertsitatean, Arrasaten

Zergatik aukeratu zenuen Informatikako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik informatika mundua gustukoa nuen eta nahiko trebea nintzen ordenagailuekin, gailu elektronikoekin... Gainera, aurretik Mondragon Unibertsitatean ikasitako lagun bat daukat eta, berari esker, erreferentzia onak neuzkan. Hori dela eta, Informatikako Ingeniaritza egitea erabaki nuen Mondragon Unibertsitatean.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia positiboa izan da niretzat. Egia da lehenengo kurtsoari begira niretzat esperientzia berria zela eta hasieran kostatu zitzaidan. Hala ere, gogor lan egin ondoren egoerari buelta eman nion eta orain oso gustura ari naiz.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Beste unibertsitateetan dauden lagunen testigantzak jasota, hemen jasotzen dugun metodologia askoz ere praktikoagoa dela eta lan munduari begira dagoela iruditzen zait. Ebaluazioari dagokionez ere, metodologia honekin ebaluazio jarraitua izaten dugu; hau da, prozesu osoa ebaluatzen da tartekako azterketak eginez.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana proiektuak dira. Proiektuetan modu autonomoan, taldeka eta, beti ere, behar denean irakasleen laguntzarekin ikasitakoa praktikan jartzen dugu. Hobetzekoei dagokionez, gure eraikinean kafetegi baten falta sumatzen dut.



Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Lehenengo gradua bukatzea da nire helburu nagusia. Eta ondoren, lan mundurako saltoa eman nahiko nuke, nire gustuko arloren batean.

www.mondragon.edu/prest

Herriko suhiltzaile boluntarioen lana omendu dute

Otsaileko suteen 100 hektareatako arboladi, sasi eta larreak erre dituzte. Suhiltzaileek gogotik lan egin dute

TTIPI-TTAPA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Jusiziako kontseilari Maria Jose Beaumonte; Barneko zuzendari nagusi den Agustin Gastaminzak; eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzendari den Javier Bayonak zuzendu zuten martxoaren 8an Cordovillako suhiltzaileen parke nagusian egin zen zaindariaren eguneko ekitaldi nagusia.

Ekitaldian joan den urtean hildako suhiltzaileen senitartekoei oroigarri bat ematearekin batera, suhiltzaileak eta



Otsailaren 27ko sutea. G.LOIARTE

suhiltzaile boluntarioak omen-
du zituzten, horien artean
Goizuetakoak. Gisa bertsuan,
ekitaldian zenbait entitateren
lana ere aitortu zuten, baita
Goizuetako Udalarena ere.

'Errementari' filma ikusteko aukera apirilaren 14an ganbaran

TTIPI-TTAPA

Udalak, Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak antolatuta, 16 urtetik gorakoentzat *Errementari* filma eskainiko dute apirilaren 14an, igandean, 18:30ean. Ganbaran zehaztu dute hitzordua eta herritarrei bertaratzeko deia egin diete.

Patxi Errementariaren kondairan oinarritutako filma 2017an aurkeztu zuten, Sitgesko Fantasiatzko Zinemaldian. 1833ko karlistalditik hamar urtera, Arabako herrixka batean kokatua da eta Alfredo izeneko Diputazioko komisario baten ikerketa du ardatz.

Elkarretaratze jendetsua martxoaren 8an

Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, argazkian ageri den taldeak elkarretaratzea egin zuen plazan. Eguna Oxeguardan egin zuten emakumeen afari jendetsuarekin bukatu zuten.



FELIX LOIARTE



FELIX LOIARTE

Emakumeei omenaldia inauterietan

Igandean haurren zahagi-dantzarekin hasi zituzten inauteriak. Astelehenean bikingoz bete zen herria eta asteartean emakumeak moztarroetan parte hartu zutenetik 25 urte bete ziren. Emakume horiei oroigarria emateaz gain, lehendabizikoz emakumezko batek zahagi rola hartu zuen.

91 etxebizitzetatik 37tan egiten dute konposta

Hemeretzi familia gehiago ari dira etxean konposta egiten auzo konpost-guneak jarri dituztenetik

TTIPI-TTAPA

Duela lau urte inguru jarri zuten Plaza Zaharreko auzo konpost-gunea eta 2018 urte bukaeran Bi ahizpak eta Oxeneakoak. Geroztik gora egin du auzo konposta egiten duten familien kopuruak; hemeretzi dira orain. Horiez gain, heme-

zortzik etxean bertan kudeatzen dituzte hondakinak eta bi elkarteek, dendak eta landetxeak ere konposta egiten dute. Konposta egin soilik ez, erabili ere bai, azken hilabeteetan auzo konpost-guneetan pilatutakoa banatuko baitute nahi dutenen artean.



E.IRAOLA

Morez jantzita kalera

Martxoaren 8ko greba deialdiak jarraipen handia izan zuen. Oinez edo kotxez Leitzara joan eta hango manifestazioarekin bat egin zuen Lopeneako biribilgunean argazkiak ageri den kuadrillak. Pestarako tartea ere hartu zuten, bazkaria, dokumentala eta afaria izan zituzten.

Panpanoziri aldizkarian parte hartzeko gonbidapena luzatu dute

TTIPI-TTAPA

Abenduan kaleratuko den arren, herri aldizkaria prestatzen hasteko lehendabiziko bilera egin dute eta landu daitezkeen hainbat gai jarri dituzte mahai gainean. Oraingoan ere gaur egungo kontuek eta garai batekoek izango dute

tartea eta aldizkaria osatu ahal izateko herritarren laguntza eskatu dute. Argazkiak, kontuak, iritziak... guztiak izango dira ongi etorriak. Parte hartu nahi dutenek, Jaione, Ana edo Eneritzi abisatzearekin nahikoa izango da. Parte hartzera anima zaitezte!



O. KALPARSORO

Elkarrekin bizi eta gozatzeko eguna

Egun berezia izan da aurtengoan ere martxoaren 8a Aranoko emakumeentzat; elkarrekin bizi eta gozatzeko. Goizean Donostiako manifestaziora elkarrekin joan zen emakume talde bat, arratsaldean Arano betaurreko moreekin aztertze solasaldia egin zuten Maisuenean eta gauean afaria.



O. KALPARSORO

Herria kolorez bete da inauterietan

Zomorroz jantzirik lehendabizi eta heroiz gero, umore ederrean ibili ziren haur, gazte eta helduak otsailaren 23an. Puska biltzearekin hasi eta mahaiaren bueltan bildu ondotik dantzaldiarekin borobildu zuten aranoarrek inauterietako larunbateko festa.



Bere azken aurrekontuak onartu ditu gaur egungo udal korporazioak. JM ONDIKOL

8.769.442 euroko aurrekontua onartu du Balleko Etxeak

EH Bildu, Ezkerra eta Baztan Auzolan taldeek alde bozkatu zuten eta Geroa Bai eta UPNk kontra

TTIPI-TTAPA

2019. urteko aurrekontu bateratua onartu du Udalak, EH Bilduren, Ezkerraren eta Baztan Auzolanean aldeko 7 bozkekin eta UPNren eta Geroa Bairen aurkako 6ekin. Azken urteetakoen ildoan heldu dira aurrekontuak, gastu arruntaren egitura bertsuarekin eta zorra jaitziz mozketak sozialik egin gabe. Udalarena 8.048.268 eurokoa da, Baztan udal ikastolarena 690.666 eurokoa (udalaren gain 54.000 euro) eta zahar-etxearena 135.508 eurokoa. Aurrekontu bateratuaz gain, Giltxaurdi enpresa publikoarena ere onartu dute 429.446,28 eurokoa.

Udalaren zorrari buruz, urte hasieran 4.282.431,97 eurokoa zen, sendotutako sarrera arruntaren %56,15ekoa, legeak paratzen duen %110eko mugaren azpitik eta 2011ko %130etik urrun; urte horretan zorra 9.700.000 eurokoa zen. Urte hondarrean zorra 3.791.831,97 eurokoa izanen da.

Gastu arruntaren atala berdintsu mantenduko da, nahiz langileen ordainsariatetan izan diren igoerengatik eta admi-

nistrari ofizial postu berriarengatik %3,12 igan. Sarrerak ere handitu dira, batez ere transferentzia arruntaren funtsa %4,89 handitu delako.

Inbertsioak

Udalak 1.480.700 euroko inbertsio atala osatu du; Udalaren gain 378.400 euro eta gainerakoa tokiko inbertsio planaren bidez, erabilera askeko funtsaren bidez eta dirulaguntzen bidez finantziatuko da. Zuaztoi eta Azpilkuetako saneamenduen, sareen eta zolen berritzen, 365.450 eta 196.100 euro erabiliko dituzte. 2015eko otsaileko erauntsiek hondatutako Sumutsuko eta Urruxkako bideak konpontzeko 79.000 eta 40.850 euro berezi dira. Iruritako ezkerreko erreko eta Erratzuko Larretako bide nagusiak breaztatuko dira, 115.000 euro. Sasiak

GILTXAURDI FUTBOL BELAGIA KONPONTZEKO 220.000 EURO

mozteko makina erosiko da, 18.150 eurotan. Uda sasoiaren Arraiozen izaten duten ur-eskasia saihesteko 46.000 euroko inbertsioa egingen da, Iruritako ur-biltegitik hodia paratzeko. 2014ko uholdeek hondatutako Giltxaurdi futbol belagia konpontzeko 220.000 euroko inbertsioa egingen da; Udalak bere gain 70.000 euro hartuko du. Haurren parkeetarako 12.100 euro bideratuko dira eta Elbeteko plaza zolaberritzeko 30.000; eskoletako lanetarako 30.000 eta hondakin organiko sortzaile handiendako konpost ontziak erosteko 57.000. Mendiko lanetan, berriz, 155.000 euroko inbertsioak egingen dira eta udaleko informatika sarea berritzeko 35.000 eurokoa.

Azkenik Bagordiko bide bazterreko zulokak betetzeko 9.500 euro. Gainerakoan Nafarroako Parlamentuak Amaiurko gazteluaren bisitarien harrera gunea egiteko 250.000 euroko dirulaguntza eman du eta Oronozko pilotalekua moldatzeko 17.500 eurokoa.

Geroa Bairen emendakinari ez

Aurrekontuen eztabaidan Geroa Baik desfibriladoreak eta lifeVACak erosteko 8.000 euro eta herrien artean 4.000 euro gehiago banatzeko emendakina sartu zuen. Alkateak errazien otsailaren 22an egindako ogasun batzordean aurkeztu izatera bideragarria izan zitekeela, baina hondar unerako utzi zuten, aurrekontuen tramitazioa gibelaraziko zutela; horregatik EH Bildu, Ezkerra eta Baztan Auzolanean emendakinaren kontra egin eta ez zen onartu. Nolanahi ere, EH Bilduk eta Ezkerrak udaltzainen autorako desfibrilagailua eta jangela duten eskoletarako lifeVACak erosteko premiazko mozioa sartu zuten, denera 2.500 euro. Mozioa ahobatez onartu zen eta aurrekontuen tramitazioan ez du eraginik, behin indarrean dela aurrekontu moldaketa bidez bideratzen delako.

Gobernu taldearen etika eskasa salatu du Geroa Baik

TTIPI-TTAPA

Baztango Geroa Baik EH Bildu eta Ezkerraren etika eskasa salatu du, udal aurrekontuei dagokienez: «Jantokia duten eskola zentro bakoitzerako eta zahar-egoitzarako lau desfibriladore eta kontrako ezarriratzearen aurkako elementu bat erosteko Geroa Baik aurrekontuei egindako zuzenketa bat gibelera bota zuten, baina ondoren elementu horien erosketa premiazko mozio bidez aurkeztu zuten haiek». Geroa Baik 12.000 euroko zuzenketa bat aurkeztu zuen, baina EH Bildu, Ezkerra eta Auzolanean taldeen botoekin gibelera bota zenez, Geroa Baik aurrekontuen aurka bozkatu zuen. Plantilla organikoa dela eta, Geroa Baik aurka bozkatu zuen, udal langileria-aren hazkunde zekarrelako. «Plantilla jada handia da, eta legegintzaldi honetan hiru lanpostu berri sortu dira. Beharrezkotzat jotzen dugu bertze alternatibak ikertzea, hala nola zerbitzuren bat kanpora ateratzea edo plazaren baten amortizazioa, plaza berriak sortu baino lehen».

Geroa Bairen udal taldeak Gai zerrendako puntuak akitu ondoren, EH Bildu eta Baztango Ezkerrak premiazko mozio bat aurkeztu zuten LifeVAC eta desfibriladore bat erosteko. «Etika gutxiko maniobra bat da, kontutan izanda gainera horiek erosteko Geroa Baik mozio bat aurkeztuzuela 2018ko ekainaren 28an, eta nahiz eta onartua izan, ordutik hona ez da deus ere egin», ziurtatu du.

Geroa Baik 8.000 euroko inbertsioa eskatu zuen, eta gobernu taldetik 2.300 euroko inbertsioa egingen da bakarrik. «Argi geratu dira bakoitzaren lehenasunak», dio Geroa Baik.

Baztandarren Biltzarrarako kartel lehiaketarik ez

Baztango artistek egindako porfolioak apirilaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra hurbiltzen ari dela eta, besta iragarriko duen irudiaren inguruan solastatzeko elkartu dira, eta elkartek aurtan ere lehiaketarik ez dela izanen erabaki du. Bertze alorretan bezala, bertakotasuna bultzatu nahian, irudia Baztango artista grafiko baten eskuetan uztea erabaki dute. Gisa honetan, kartelaren kalitatea ziurtatzeaz gain, irudiak bestaren esentzia eta izaera garbi erakustea bilatzen dute, eta bidenabar, lehiakortasuna ekiditea.

Baztango artista grafikoak parte hartzera animatu nahi ditu Baztandarren Biltzarra elkartek. Beraien lanen porfolioak apirilaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Jasotako artean besta iragarriko duen artista hautatu eta berehala jakinaraziko diote. Gainontzekoak, berriz, datozen urtetarako hautagai gisa gordeko dituzte, asmoa urtero artista ezberdin baten lana aukeratzea baita. Lanak formato digitalean bidali behar dira grafismoa@baztandarrenbiltzarra.eus helbidera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haziaren Eguna jendetsua Gartzainen

Azken urteotako bideari jarraikiz martxoaren 9an Baztango Haziaren Eguna egin zuten, aurtengoa Gartzainen. Iragarrita zegoen bezala, goizetik herriko pilotalekuan hazien trukerako mahaia paratu zituzten eta harat hurbildutakoek esku esku sasoi berrirako haziak esku aldatu ahal izan zituzten. Ondotik, Ezkaldok elkartean otamena eginda, Jakoba Errekondoren mintzaldia izan zen: lurren iraultzeaz, gaitzen eta mamurruren tratamenduez, glifosato eta transgenikoez, barras belar eta ilarrak ongiriztatzeaz eta bertze zenbait mintzagairi buruz. Harat hurbildutakoek mintzaldia erne segitu zuten.

Erakutsi eta probextu aukerak!

DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia digitalean Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	IPINGI 10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Santiago, 122 ELIZONDO T. 948 58 09 39
Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Zaldubia indus. 8 partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25	SANSIÑENA %5 DESKONTUA olio aldaketetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ALMACO BAZTAN %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com
begoviela %25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan %10 DESKONTUA 10 saioko bonoetan Santiago 14, 38 ELIZONDO T. 636 58 30 34	BIOK BAT TAILERRAK %15 DESKONTUA frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98	Giltxaurdi Udol Kiroi Instalazioa %5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoz Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01
onegin %5 DESKONTUA kontsultetan Amaia Meoki T. 699 11 71 91 oneginelizondo@gmail.com ELIZONDO	ARGIBEL PTIKA ESKAINZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91	POSADA ELBETE %10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19
nafarpres %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialean. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02		

Baserrietara bideak hormigoiztatzeko ia 8,5 milioi behar dira

Nafarroako Gobernuaren konpromisoa behar du Udalak, orain artiko finantziazioarekin ezinezkoa duelako bere gain hartzea

TTIPI-TTAPA

Jendeak bizi diren baserrieta-ko bideak aztertu ditu Udalak azkeneko hilabete hauetan, horien egoera ikusi eta horren arabera egin beharreko lanak eta aurrekontuak zehaztu ditu. Txostenaren arabera, jendea bizi den 91 baserri daude eta denera 76,3 kilometro bide dago. Bide horiek eguneroko oinarritzko beharretarako nahitaezkoak dituzte horietan bizi diren herritarrek eta 8.473.883,40 euro beharko lirakeke moldatzeko. Txostena eginda Udalak Landa garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren kontseilariarekin hitzordua eskatu du txostena eskura eman eta jakitun izan dadin.

Aitzineko hiru urte hauetan Udalak Baztango auzoetako bide nagusiak zolaberritu ditu eta horretarako 600.000 euro bideratu. Zolaberritu diren auzoak dira: Orabidea, Aintzialde, Zozaia, Ziga, Azpilkueta, Oronozko baserrien aldea, Mendiolako zati bat, Iñarbil, Berro, Oharriz... Onartu berri diren aurrekontuetan



Baserrietako bidea moldatzen Anizen.

ere Iruritako ezkerreko erre-kako auzoko bidea eta Erratzuko Larretakoa breaztatze-ko 115.000 euro bideratu ditu. Oraino ere Erratzuko Azkara-tekoa falta da eta bertze zati ttipiangoak ere bai.

Auzoetako bide nagusiak zolaberrituta baserrietako bideak hormigoiztatzeko hasi nahiko luke Udalak, baina horretarako Nafarroako Gobernuaren konpromisoa behar du, orain artiko finantziazio-ko sistemarekin Baztanek ezinezkoa duelako hori guztia bere gain hartzea eta, horregatik, Nafarroako Gobernuari Baztango berezitasuna gogoan hartzeko eskatzen diogu, udalerriak duen lurraldearen zabaltasuna hain zuzen.



JUAN MARI ONDIKOL

100 urte bete ditu Antonio Ilzauspek

Erratzuko Antonio Ilzauspek ehun urte bete ditu martxoaren 5ean. Elizondoko zahar-etxean bizi da gaur egun eta bizilagunen, langileen eta familiaren zorion-agurrak jaso zituen. 18 urte zituenean, Espainiako Gerratik ihes egin eta Iparraldean bizitu zen luzaro, baserriko lanetik. Aunitz urtez!



JUAN MARI ONDIKOL

Erratzuko damen burrunba

Ohikoa denez, Inauteri Asteartean damek egindako danbor-burrumbarekin akitu zituzten inauteriak Erratzun. Jokin Bengoetxea gidari zutela hamasei danbor-jole atera ziren herriko karriketan barna, hainbat ikusle eta entzule zituztela lagun. Hiru urteko Xuhar Huarte Etxenike izan zen ttikiena.

ORBELA
SENDERISMO ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com


744 484 361
ttipi-ttapa

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Korrikaren bueltan egun osoko besta prest dute Elizondon

Martxoaren 30ean bizikleta-martxarekin hasi eguna eta bazkariarekin, bertsolariekin eta musikarekin akituko dute

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

21. Korrikaren harira, martxoaren 30erako, larunbate-rako, ekitaldiak antolatu dituzte Baztanen. 10:00etan, herriko plazan bilduko dira, kafea hartzeko eta 11:00etan Amaiurko plazatik Elizondora bizikleta-martxa izanen dute.

Ondotik, 14:30ean Elizondoko Eskisaroj jatetxean bazkalduko dute. 18:30ean Julio Soto eta Ander Lizarralde lagun dituztela, bertso-poteoan ibiliko dira herrian barna.

Eguna borobiltzeko Tuma-txak taldearen eta Tape DJaren



Apirilaren 8an ailegatuko da Korrika.

erritmora dantzatzeko aukera izanen dute.

Korrika apirilaren 8an sartuko da Baztanen Urdazubitik eta 13:20 aldera izanen da Elizondon.

'Dantza' filma ikusgai Iruritan martxoaren 31n

Dantza film arrakastatsua eskainiko dute martxoaren 31n, 19:00etan Iruritan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak Arte eta Kultura 2019 programaren baitan antolatu du eta sarrera doan izanen da, lekua bete arte.

Ikastaroak prest dituzte Elizondoko Osasun Zentroan

Martxoaren 20an, asteazkenean 11:00etatik 13:00etara Bizkar tailerra antolatu du Elizondoko Osasun Zentroak. Martxoaren 27an eta apirilaren 3an, 10:30etik 13:00etara osasuntsu zahartu ikastaroa egingen dute. Izena emateko 948 581 833 telefonora deitu.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAIALEN IANTZI

Berroeta eta Anizkoak sagardotegian

Otsaila akabera eta martxoa hasiera mugituak izan dituzte Basaburua aldean. Otsailaren 23an sagardotegira egin zuten irteera 25 berroetar eta aniztarrek. Hernaniko Iparragirre sagardotegian bazkaldu eta egun ederra pasatu zuten. Gaueko ordu ttipiak arte luzatu zen besta.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAIALEN IANTZI

Orakunde Eguna borobila Berroetan

Martxoaren 2an Orakunde eguna izan zuten Berroetan. Gazteenak etxez etxe ibili ziren, Ane akordiolariarekin. Elkarteak bazkaldu eta gero, jolasak egin zituzten plazan. Saraien trikitixaren doinuekin pasatu zuten arratsaldea. Ttikienek txokolate beroa eta helduxeagoek afaria izan zuten.

BEROPEL
egurrezko pellets
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

2017an aurkeztu zuten Larungo proiektua berrikusia

Ondoko hiru hilabeteetan tailer publikoak egingen dituzte alde guztien arteko adostasuna bilatzeko asmoz

TTIPI-TTAPA

Pirinio Atlantikoetako Departamentuak 2017an Larun eta ingururako aurkeztutako *La Rhune 2020* egitasmoa osoki berrikusia izanen da. Halaxe jakinarazi zuten martxoaren 5ean Urruñan egin zuten bilkura irekian. Hala, Larun gainean aurreikusia zen zaldaina, San Inazio lepoan egin nahi ziren 110 aparkalekuak eta bagoi gehiago paratzeko proposamenak gibelean utziak izan dira. Are gehiago, Departamentuak duela bi urte aurkeztutako proiektu hura «zi-

rriborroa» izan zela adierazi du.

Andueza-Agor gabinetea ingurumena eta paisaiaren inguruko azterketa bat egiten ari da eta horixe izan zen martxoako bilkuran aurkeztu zutena. Orain, berriz, bigarren faseari ekinen diote, eta ondoko hiru hilabeteetan, tailer publikoak egingen dituztela iragarri dute, alde guztien arteko adostasuna bilatzeko asmoz. Hortik abiatuta bertze proiektu bat aurkeztuko dute, Larun mendia osoki kontuan hartuko duena.

Bi lasterketa Sara Korrikaren 20. urteurrena borobiltzeko

TTIPI-TTAPA

Sara Korrika taldekoak azken ukituak ematen ariko dira gaurgero. Gainera, taldearen 20. urteurrena dela eta, aurtan bi lasterketa antolatuak dituzte eta segur karrikak lasterkariz beteko direla.



Lasterkariak mendi lasterketan.

Larunbatean taldeka eta igandean banaka

Martxoaren 30ean, larunbata, Sktrio deitu duten hirunakako lasterketa egingen dute estreinako. 12:00etan abiatuko da lasterketa eta taldeko lehenbizikoak 11,212 kilometro egin beharko ditu, bigarrenak 10,97 kilometro eta hirugarrenak 9,375. Sari banaketa, berriz, 19:00etan egingen dute eta eguna borobiltzeko 20:00etan afaria egingen dute.

Biharamunean, hilak 31, 22 kilometro eta 1.600 metroko

malda dituen lasterketaren eguna izanen da. 14. edizioa beteko du aurtengo edizioak. 07:30ean dortsalak banatuko dituzte eta lasterketa 09:00etan hasiko da herriko plazatik. Lehenbiziko lasterkariak 10:45 aldera ailegatuko direla aurreikusi dute antolatzaileek. 13:00etan sari banaketa egingen dute eta zozketak ere egingen dituzte. Jatekoa eta edatekoa nahi duenak horretarako aukera izanen du.



GANEX

Ihauteri ederrak aurtan ere

Giro ederrean iragan ziren ihauteriak. Larunbatarekin gazteria, mozturroturik, auzoetan ibili zen etxez etxe eta igandearekin, aro ederra lagun, jende ainitz bildu zen zanpantzarren auziaren karietara. Ondotik aperitifia eta taloak eskaini zituzten hiru eskoletako haurren burasoek.

Ekoizleen merkatua apirilaren 5etik aitzinera

Apirilaren 5ean hasita, urrira bitarteko ortziraletan bertako ekoizleen merkatua izanen da, 16:30etik 20:30era. Urtero bezala, barazkiak, esnekiak, haragia, arrautzak, sagarinoa, zukuak eta bertzelako hainbat produktu erosteko aukera izanen da plazan.

Ikastolako haurren ikuskizuna apirilaren 5ean

Olhain ikastolak besta eguna izanen du heldu den ortziralea, apirilak 5. Egun horretan, 18:00etatik goiti, ikastolako neska-mutikoek antzerkiak eta kantuak eskainiko dituzte kiroldegian eta burasoek jatekoa eta edatekoa eskainiko dute.

X. Lezeen Eguna igandean ospatuko dute

Bisitarien artean landa-etxe batean asteburu-pasa bat, saski eder bat eta bi lagunendako 10 sarrera zozketatuko dituzte

MARIFA ETA KORO

Martxoaren 24an, heldu den igandean, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeek, X. Lezeen Eguna ospatuko dute. Horietan ez ezik, Oñatin, Zestoan, Karrantzan, Astitzen eta Bastidan, hots, Lurpea ekarte osatzen duten leze guztietan, ospakizun ekitaldiak izanen dituzte.

Lerro hauek idazterakoan egitaraua zehazteke bazegoen ere, ekitaldi bereziak aurreikusitak zituzten. Ikusleek historiaren, kondairaren, naturaren eta kulturaren zati bat

dastatzeko aukerarik ez dute faltako eta eskaintza bereziak izanen dituzte.

Zozketak

Gisa bertsuan, bertaratzen diren bisitarien artean zozketak eginen dituztela jakinarazi dute. Zehazki, herriko Haitz-Etxea landa-etxean asteburu-pasa, leze bakoitzarekin erlazioatutako produktuez hornitutako saski ederra eta Lurpea elkarteko kobazulo guztiak ezagutzeko hamar sarrera bikoitz zozketatuko dituzte.



Herritarrak, urdazubiarrek eta ainhoarrak mahai-inguru goxoan bildu ziren.

Ainhoakoen bisita izan zuten urdazubiar eta zugarramurdiarrek ludotekan

MARIFA ETA KORO

Urdazubi eta Zugarramurdiko ludoteka antolatzen duen Harremana elkarteko kideek besta polita antolatu zuten. Joan den urtean herritarrak Ainhoako ludotekan izan ziren eta aldi honetan hangoak bisita itzultzeraz etorri zitzaizkien. Ludotekako kideak ez ezik,

haurrak eta apeza ere gonbidatu zituzten. Horiek kantu batzuk eskaini zizkieten eta txokolate beroa dastatu zuten.

Ludoteka antolatzen den tokia Leorlasen dagoen antzinako eskola da. Eraikin hori Udalak berritu zuen eta gisa hauetako ekimenetarako erabiltzen dute orain.



MARIFA ETA KORO

Giro ederra izan dute inauterietan

Eguraldi ederra izan dute inauterietan. Larunbatean gazteak baserriz baserri ibili ziren. Aurten sei kurritu dituzte, zoritxarrez jendea bizi den baserriak gero eta gutiago baitira. Igandea haur eta familien eguna izan zen. Goizean karriketan ibili ziren, bazkaldu eta tikiendako jokoak izan zituzten.



MARIFA ETA KORO

Emakumeei elkartasun keinua

Martxoaren 8an Emakumeen Eguneko seinale polita egin zuten herrian. Eguerdian 30 lagun inguru bildu ziren plazan. Haietako batek egun horretan urteak bete zituen kanta bat ere eskaini zioten eta ondotik Euskal Herriko hainbat txokotan kantatu zituzten bertsoak kantatu zituzten.

Bere ohorezko bi euskaltzainak ohoratu ditu herriak

Auxtin Zamora eta Henri Duhauren ibilbidea eta gelditu gabeko lana goretsi dituzte martxoaren 2an

PIERRE BASTRES

Guttitan gertatzen da herri berean bi Euskaltzain izatea betan. Biak, Auxtin Zamora eta Henri Duha, Euskaltzain Ohorezko izendatu zituzten 2018an.

Henri (Beskoitze 1942) izan da, bai Beskoitzen baita Senperen ere, batasun ainitzen kide edo sortzailetako bat Oinak Arin dantza-taldea Beskoitzen eta Zirikolatz Senperen, Zaldubi ikastola Senperen, bertzeak bertze. Horrez gainerat, artikulu ainitz idatzi ditu aipabide ainitzetaz: hizkuntza, idazleak, gizartea, politika, fedea...: *Gazte, Herria, Otoizlari, Dantzariak, Enbata, Ekaina, Berria, Denak Argian* aldizkarietan, eta 20 liburu baino gehiago ditu 1993az geroztik. Bere sorterriari bizi-ki atxikia, 'Hasian Hasi, Beskoitzeko Euskara' zen bere lehenbizikoa, 'Les Sources Salées de Briscous/Beskoitzeko Ur Gaziak' azkenik argitaratu duena delarik. Tartean, aipa Ditzagun, adibidez *Aupa batasuna!* (artikulu bilduma), 'Dufau bi anaiak', 'Artzain

beltxaren neurtitzak (Adema-Zaldubi)', 'Bidegileak (Jean Barbier)', *Hortzak izerdi* (artikulu bilduma). Ez dezagun ahanztu Corpus eta Euskalkien batzordeetan aritzen dela Euskaltzaindian.

Auxtin Senperen sortu zen 1943an, eta olerkigintzan aritu izan da nagusiki. 1988an *Hatsaren Bustia* idatzi zuen, bere olerkiekin. 1999an *Hatsa* batasuna sortu zuen: helburua zen olerkari ezagun edo ezezagunen lanak biltzea eta argitaratzea, ziren bezalaxe. Orduz geroztik, urte guziz bilduma bat osatzen du, *Hatsaren Poesia*, nahi dutenen olerkiak plazaratuz eta idazle horiek elgarretaratzen ditu Larraldean, bideo bat sortuz karria hortarat. Halaber, eskola ainitzetan ere bere zale-tasuna partekatzen eta eza-gutarazten du, izan dadin Lapurdin, Baztan edo Bidasoa ibarretan. Ikerlan zonbait ere burutu ditu, herri batzuetako etxeen izenak biltzeko (*Sara Etxez Etxe, Etxalar Etxez Etxe, Senperen Etxez Etxe*) edo iraganeko gertakariak oroitaraz-



Hainbat behatzaile izan zituzten Auxtin Zamorak eta Henri Duha. P. BASTRES

teko: *Senpertar Ingumak, Tikiak Handi*. Maiatz argital etxean ere aritu izan da. 2018 ohoratua izan zen Sarako Idazleen Biltzarran.

Herriar eta adiskideez gainerat, kantari, dantzari eta Euskaltzain ainitz etorri ziren omenaldirat. Elixabet Anduezen lehen bertsoen ondotik, ohoredunak eskertu zituen laburzki auzapezak, Andres Urrutia Euskaltzaindiko Buruaren hitzaren aitzin. Honek euskal kulturari eta euskarari eginiko ekarpen handiak goretsi zituen, ederki erranez «ekin eta jarrai» Euskaltzaindiaren ikurburuari jarraiki zitzaizkiola ezinago artoski. Xarle Videgainen Euskaltzaindiaren aurkezpena, *Agurra Dantza* eta kantu baten ondotik, Ainara Maia *Hatsa* elkartearen buruak bere lekuko-

tasuna eskaini du, Auxtinen libertatearen gosea eta hitzen maitasuna poliki adieraziz. Marie-Jeane Bereau, herriko hautetsia eta Zirikolatz lehen-dakari izana, bihotz-bihotzetik mintzatu da Henriren ibilbideaz, batez ere dantzaren alde egindako lanaz Senperen, aintzindari eta langile. Gisa, eta elgarrekin aritu izan ziren garaiaz.

Euskal Herrian Euskaraz Senpereko kantariak abestu eta gero, arrosa lore bana eskaini zioteten Auxtin eta Henriri, *Arrosa Dantza* emanda. Hondarrean, auzapezak Herriko medaila emana zioten.

Bi gizon horien lan baitezpadakoaren onartzea hunkigarria izan zaie behatzaile guzietan, eta Andres Urrutiak adiskideki aholkatu dien bezala, jarraik bite ildo beretik.

'Ez dok hiru: Euskal musikaren benetako historia' antzezlanaren igandean Larrekon

P. BASTRES SENPERE

Lapurdi 1609ren eskutik, Tartean Teatroa antzerki taldeak *Ez dok hiru: Euskal musikaren benetako historia* antzezlanaren emanen du martxoaren 24an, igandean 17:00etan Larreko gelan. Publiko helduari zuzendutakoa da, umorezkoa,

euskaraz. Patxo Telleriak tes-tuak sortzeko eta Mikel Martizenek, eta Telleriak berak, zuzenean antzezteko duten estiloarekin. Oraingoan, bikoteak bertze hiru musikari-aktorekin partekatuko du taula, hitzari, zuzeneko musikaren indarra gehituz.



Euskal musikaren imaginario kolektiboan murgilduko gaitu ikusizunak.

Martxoaren 8a ospatzeko ekitaldi aunitz izan ziren

Ugarana Emakume Elkarteak pozik agertu da martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekitaldiek izan zuten harrerarekin

IÑIGO IMAZ

Urdazubiko Ugarana Emakume Elkarteak pozik dago Emakumearen Eguna ospatzeko prestatutako ekitaldietan parte hartze handia izan baitzen. Martxoaren 8ko elkarretartzeaz gain, antzerkia, dokumentala, ikastaroa eta sagardotegira irteera egin zituzten. Martxoaren 2an herriko Kultur Etxean Virginia Imazek egin agerraldian, urdazubiar aunitz elkartu ziren, arratsaldean, *Modelo clowntra-publicitario* izenburua duen helduentzako klown ikuskizunaz gozatzeko. Martxoaren 7an, Asun Casasolak, Sanferminetan erahila izan zen alaba Nagore Laffageri buruzko dokumentala aurkeztu zuen. Casasola hunkituta agertu zen Kultur Etxean bildu ziren 60 bat herritarren aitzinean. Gehienak emazteak

ziren, baina gizonezko gutti batzuk ere hurbildu ziren. Martxoaren 8an, Herriko Etxearen atarian, 50 bat herritar bildu ziren *Nigatik, zugatik, beragatik, danogatik* lelopean. Martxoaren 8, 9 eta 10ean berriz, Ugaranak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin emakumeen defentsa pertsonala lantzeko ikastaroa egin zuen. Hamar emakumek parte hartu zuten. Leorlas auzoko eskoletako kiroldegian elkartu ziren horretarako. Akitzeko, aurten ere sagardotegira irteera antolatua izan zen arren, oraingoan Lesakako bidea hartu zuten urdazubiarrek. Azken urteotan Astigarragako Petritegin izan ohi zen afaria, baina martxoaren 9an, larunbatarekin, lekuz aldatzea erabaki zuen Ugaranak, eta primeran pasatu zuten.



Ongi baino hobeki ospatu zuten martxoaren 8a emazteek. UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro eta umore ederrean joan dira inauteriak

I. IMAZ

Umorea, kolorea eta giro ederra. Inauteriak tarteko, horietan nagusitu ziren martxo hasieran herrian. Haur, gazte eta helduek denek izan zuten gozamenerako tartea.

Igandean, martxoak 3, gazteak moztarrotu eta auzoko bentetan barna ibili ziren Beñat Mitxelena akordeoilariarekin. *Ofizioak* zuten aurten moztarrotzeko gaia eta denetarik lanbideak ikusteko aukera izan zen: sukaldariak, pailazoak, baserritarrak, erizanak eta medikuak, suhiltzaileak, ile-

apaintzaileak, fraileak, toerroak... Gazez pintxoak eta musika izan ziren denendako.

Astelehen eta asteartean, berriz, gazteak alde batetik eta haurrak bertze aldetik, etxez etxe eskean ibili ziren. Batzuek zein bertzeek trikitixa doinu eta pandero hotsekin ederki alaitu zituzten herriko bazterrak. Arratsaldean, haurrendako animazioa izan zen eta gazez, inauteriak borobiltzeko, pintxoak eskaini zituzten. Mugimendu pixka bat nahi zuenarentzat musika ere paratu zuten.



Kuadrilla ederra ibili zen aurten ere etxez etxe inauterietan. J. JAUREGI / I. IMAZ



Hodei Ezpeleta, Julen Larrea, Goenatxo IV.a, Nerea Sorondo, Ruben Saralegi eta Iker Vicente txapeldunak. IBON ERRAZU URIA

Nerea Sorondok irabazi du banakako Urrezko Aizkora

Binakako Urrezko Aizkolaria txapelketan, berriz, Iker Vicente eta Ruben Saralegi suertatu dira txapeldun bigarren urtez segidan

TTIPI-TTAPA

Urrezko binakako eta banakako aizkolaria txapelketako finalak jokatu ziren martxoaren 2an Azpeitian (Gipuzkoa) eta jaialdiko bi txapel nagusiak

eskualdera etorri ziren. Banakakoan Nerea Sorondo berratarra erraz nagusitu zen eta binakakoan gauza bera egin zuten Iker Vicentek eta Ruben Saralegi leitzarrek.

Urrezko Banakako Aizkolaria Txapelketan, Nerea Sorondorekin batera, Maika Ariztegi iturendarra eta Irati Astondo bizkaitarra aritu ziren. Beratarra zen faborittoa eta ez zuen hutsik egin. Lehen bi urteetan txapeldunorde izan ondotik (iaz zentesima eskas batzuegatik bigarren izan zen Maika Ariztegiren gibeletik), aurten nagusitasunez jantzi zuen txapela. 06:33ko denbora behar zuen lanak bukatzeko (36 ontzako hiru enbor moztea). Iazko txapeldunak, Ariztegi iturendarrak, 07:41eko denbora egin zuen

eta Irati Astondoak zortzi minututan bukatu zituen lanak.

Vicente eta Saralegi bigarren aldiz segidan txapeldun

Binakakoan, berriz, Iker Vicente eta Ruben Saralegi (Leizta) joan den urteko txapeldunek ez zuten arazorik izan aurten ere txapela eskuratzeko. 27 minutu eta bederatzigutxi segundo behar izan zituzten lanak bukatzeko. Julen Alberdi Txikia IV.a eta Aitzol Atutxa bigarren gelditu ziren (28:15) eta Mikel Larrañaga eta Eneko Otaño hirugarren (29:37).

23 urtez azpikoetan, Joxean Etxeberria zigatarra Ariz Aspiazu Arria VI. arekin aritu zen eta hirugarren gelditu ziren. 13 minutu eta hiru segundo behar izan zituzten lan guztiak bukatzeko. Txapela Julen Larrea eta Hodei Ezpeletarentzat izan zen (12:12) eta Oier eta Xuban Kañamares izan ziren bigarrenak (12:41).

Harri-jasotzen, azkenik, Jon Unanue Goenatxo IV.a nagusitu zen 19 jasoaldirekin, Xabier Aranburu Guzta (18) eta Aimar Galarragaren (15) aitzinetik. 175 kiloko harri errektangularrarekin eta 150 kiloko kubikoarekin aritu ziren lanean, hiruna minutuko txandetan.



OLATZ GO

Mistoan ere podiumera igo da Beti Gazte

Martxoaren 9an jokatu zen Euskadiko sokatira txapelketa mistoan bigarren izan zen Beti Gazte. Lesakarak txapelketa bikaina osatu dute: hiru urrezko domina lortu dituzte (gizonezkoek 680, 640 eta 600 kilotan), zilarrezko bi (560 eta mistoa) eta brontzezkoa (emakumeek 500 kilokoan).



UTZITAKO ARGAKZIA

Javier Sein Rural Kutxa kopako liderra

Rural Kutxa BTT Kopako lehen lasterketa burutu zen martxoaren 3an Fiteron eta Javier Sein iturendarrak garaipena lortu zuen. Ia 500 txirrindulari atera ziren kategoria guztietan eta 23 urtez beheitikoan lehiatu arren, proba nagusia ere irabazi zuen SH Metalgraf taldeko iturendarrak.



Ezker-eskuin, Iban eta Jon Arburua anaia, Juantxo Pikabea, Iñaki Irigoien, Josetxo Irazoki eta Txomin Iribarren. UTZITAKOA

Josenea PandAvia taldeak Marokon lehiatu du egunotan

Eskualdeko sei auto-gidari eta kopilotok parte hartu dute 5.000 kilometro baino gehiagoko Panda Raid lasterketan

TTIPI-TTAPA URDAZUBI

Josenea PandAvia Team taldea aurkeztu zuten martxoaren 2an Dantxarinako Josenea Zone Auton. Nafarroako sei auto-gidari eta kopilotok osatzen dute taldea: Berako Iban eta Jon Arburua anaiek,

Lesakako Juantxo Pikabeak eta Iruñeko Iñaki Irigoienek eta Igantziko Josetxo Irazokik eta Urdazubiko Txomin Iribarrenek. Seiek lehen aldiz parte hartu dute martxoaren 8tik 16ra Marokon egin den Panda Raid lasterketan.

Ibilgailuak seriekoak dira, baina aldaketa gutti batzuk egin zizkieten, Marokoko basamortuan eta pistetan ibili ahal izateko. Hamar egunez 5.000 kilometro baino gehiago egin behar zituzten. Madrilgo Jaraman martxoaren 8an egitekoa zen kontzentrazioarekin hasi zen lasterketa eta martxoaren 16an Marakechen bukatu. 450 Panda eta Marbella ibilgailuk parte hartu zuten, profesionalak ez direnei zuzendutako zazpi etapako lasterketan. Elkartasunari ere tokia egin zioten, Marokoko eskola batendako 20 kilo eskola-material eraman baitzuten autoek.

Nafarroako Herri Kirol Jolasak abiatu dira igande honetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak herri kirol jokoak antolatu ditu bertze urte batez, 11 eta 16 urte arteko neska-mutikoei zuzendua. Martxoaren 17an Txantrean hasi eta apirilaren 14an Altsasun jokatu diren finalak bitarte, herriz-herri proba konbinatuetan eta sokatiran hainbat gaztetxo ibiliko dira.

Txantrea lehen saioaren ondotik, martxoaren 24ko bigarren jardunaldia Etxarri Aranzatzen, martxoaren 31ko hirugarren jardunaldia Erratzun eta apirilaren 7ko laugarren jardunaldia Berriozarren egingen dituzte, apirilaren 14ko finalak baino lehen.

Eskualdeko taldeak

Eskualdeko taldeei dagokienez, kimu mailan Igantzi, BRT Menditarrak eta Basaburua+Araxes ariko dira; haurretan Igantzi, BRT Menditarrak eta Basartza (Berroeta, Baztan, Betelu eta Ibero) eta kadetetan BRT eta Basarnegi (Berroeta, Baztan eta Ibero).

Euskal Herriko lehen disc golf-zelai homologatua izanen du Irriarri Landek

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Martxoaren 16an hasi da Irriarri Land parkeko seigarren denboraldia. Aurtengo berrikuntza nagusia Euskal Herriko lehen disc golf-zelai homologatuaren irekiera da.

Gero eta jarraitzaile gehiago dituen kirol honetaz gozatze-ko aukera eskainiko zaie erabiltzaileei: disko hegalaria eskuarekin botaz, golfeko jokalariek bezala, zirkuitu bat osatzea izaten da helburua. Euskal Herriko lehen disc golf-

zelaia da IrriSarrin eraiki dena. Estatuan, Oviedon (Asturias) eta Mijasen (Andaluzia) dauka bertze biak. Joko-zelaiak 18 zulo (saski) ditu. Azken zulora, adibidez, 140 metroko distantziazatik bota behar da diskoa. Disc golf-zelaiak golfeko zelai baten antza handia du, eta Euskadisc Golf etxeak diseinatu eta sortu izan da. Apirilaren 6an izanen da irekiera ofiziala, Maitena Ezkurtari, Nafarroako Gobernuako Turismo eta Merkataritza



Disc-golf jokoa probatzen Irriarri, Baxi maskotarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

zuzendari nagusiaren eskutik, eta berak egingen du lehen jaurtiketa. Disc golf kirolak bete-betean egiten du bat na-

turarekin, eta jokoan aritzeko behar den teknika erabat inklusiboa da, adin guztietako pertsonentzat egokia.

HITZALDIAK

LEKAROZ

'Ez dut denborarik. Nola antolatuko naiz?' mintzagai

Zubigainea etxean, martxoaren 21ean eta 25ean, 17:30etik 19:30era eta 10:00etatik 12:00etara, hurrenez hurren.

'Aldaketaren ardatza ni naiz'

Zubigainean, apirilaren 1ean eta 4an, 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era, hurrenez hurren.

'Erraza, osasuntsua eta zapoetsua'

Zubigainean, apirilaren 8an eta 11n, 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era, hurrenez hurren.

'Mitoak eta harresiak suntsituz'

Zubigainean, apirilaren 15ean eta 17an, 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era, hurrenez hurren.

ANIZ

Energia berriztagarrien sorkuntza

Elkartean, martxoaren 21ean, 19:00etan.

ZUBIETA

Herriko plazaren mendeurrenaren harira bilera

Herriko Ostatuan, martxoaren 23an, 19:30ean.

LESAKA

Ikusmen urritasuna hizpide

Erabilera Anitzeko Aretoan, apirilaren 6an, 09:00etan hasita.

TAILERRAK

SALDIAS

Sukaldaritza makrobiotikoa

Martxoaren 23an hasita.



ARTXIBOKOA

XARETA Lezeen Eguna

Eskaintzak eta zozketak Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeetan. Martxoaren 24an.

DONEZTEBE

Irriterapia tailerra

Martxoaren 29an eta apirilaren 5ean eta 12an. Prezioa: 20 euro. Izen-ematea: 659 37 99 17.

ELIZONDO

Agroekologia eskola herritarra

Arizkunenean, apirilaren 12an, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

'Aralar, mundua leku den lurra' filma

Zineman, martxoaren 22an, 19:30ean.

'Dantza' filma

Zineman, apirilaren 14an, 18:30ean. Sarrera: 2 euro

ITUREN

'Tabernaria. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña'

Ganbaran, martxoaren 23an, 19:30ean.

LESAKA

Josu Okiñena 'Xuxurlak'

Harriondoan, martxoaren 23an, 19:00etan.

BERA

Haurrentzako ipuin-kontalaria

Alexia Papantcheven eskutik ingelesez. Liburutegian, martxoaren 29an, 18:00etan.

SENPERE

'Ez dok hiru: euskal musikaren benetako historia'

Larrekon, martxoaren 24an, 17:00etan.

ERATSUN

Ipuin-kontaketa

Pello Añorgaren eskutik. Eskolan, martxoaren 30ean, 11:00etan.

'Barry Manley bakarrizkanta' bakarrizketa

Ondotik afari autogestionatua Elitxen. Martxoaren 30ean, 18:00etan.

IRURITA

'Dantza' ikuskizuna

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, martxoaren 31n, 19:00etan.

LEITZA

'Erradikalak gara' ikuskizuna

Atekabeltzan, martxoaren 31n, 19:00etan. Sarrera: 5 euro.

GOIZUETA

'Errementari' filma

Ganbaran, apirilaren 14an, 18:30ean.

LEHIAKETAK

ESKUALDEA

Inauterietako argazki lehiaketa

ERRAN.EUS atariak antolatua. Martxoaren 22ra arte bidal daitezke, erran.eus atariaren bidez.

LESAKA

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa

Oinarriak Udalaren webgunean. Apirilaren 12ra arte.

KIROLA

ELIZONDO

Okolin

Martxoaren 24an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

Legarreara

Martxoaren 31n, plazatik abiatuta, 07:30ean.

Biriatura

Apirilaren 7an, plazatik abiatuta, 06:00etan.

ARANTZA

III. Mendi-lasterketa

Ekaitza Elkartean eskutik. Martxoaren 31n, 09:30ean herriko plazatik abiatuta.



ARANTZA III. Mendi Lasterketa

Ekaitza Elkartearen eskutik.
Martxoaren 31n, 09:30ean abiatuta.

SARA Taldekako mendi-lasterketa

Martxoaren 30ean, herriko
plazatik abiatuta, 12:00etan.

Mendi-lasterketa

21 kilometroko ibilbidea.
Martxoaren 31n, herriko plazatik
abiatuta, 09:00etan.

KONTZERTUAK

ITUREN

Palenka & Julian

Martxoaren 23an, 20:30ean.

SARA

Unama taldea

Kaperan, martxoaren 24an,
16:30ean.

ERATSUN

Malerreka Kantuz

Martxoaren 30ean, 13:00etan.

BEINTZA-LABAIEN

Malerreka Kantuz

Apirilaren 6an, 12:00etan,
plazatik abiatuta.

SUNBILLA

Asteburu Kulturala

Martxoaren 29an, 30ean eta
31n.

OSPAKIZUNAK

BORTZIRIAK

Kinto besta

1944an sortutakoak.
Arantzakoak, Igantzikoak eta
Lesakakoak bilduko dira.
Martxoaren 23an.

XARETA

Lezeen Eguna

Martxoaren 24an.

ELIZONDO

21. Korrikaren harira, ospakizun ekitaldia

Amaiurko plazatik Elizondora
mendi-martxa.
Martxoaren 30ean.

SARA

Ikastolako besta


Kiroldegian, apirilaren 5ean,
18:00etan.

Nire aukera

«Aurten ere Iruritako Mendi Duatloian parte hartzeko asmoa dut»

MANU IRIGOIEN URRUTIA ERRATZUKO GAZTEA

«Lagunekin denbora pasatzea, kirola egitea eta esperientziak bizitzea» maite duen 29 urteko erratzuar gaztea da Manu Irigoien. Astegunez lan egiteaz gain, «beti» harrapatzen du gustuko duena egiteko tarteren bat: «bizikletan ibili edo palan aritzen naiz». Asteburuak, berriz, «ingurukoekin egoteko, mendira joateko, lekuak ezagutzeko edo lasai egoteko» baliatzen ditu. Gustuko du kirola, eta «ahal dudan eta eguraldiak laguntzen duen guztietan» egiten du zerbait. Gehienetan «frontoiari lotutakoetan, palan edo paxakan» eta noizean behin «adrenalina eragiten dutenak probatuz, parapentean edo paraxutean»



ibiltzen da. Mendian goiti edo bizikleta gainean ere ikusi izan dugu: «duela gutti hasi nintzen, baina gero eta gusturago ibiltzen naiz». Lehiaketak edo jende aunitz biltzen diren ibilaldiak baino, nahiago ditu bere kabuz egiten dituenak: «nahiko lehiakorra naizela aitortu behar dut...» dio irriz. Dena dela, joan den urtean

Iruritako Mendi Duatloian parte hartu zuen «eta aurten ere asmo bera dut». Kirolak «arras ongi» sentiarazten du Irigoien: «izerdia botata hobe sentitzen naiz». Horretarako urruti joan beharrik ez du izaten. Izan ere, «ingurukoek nire zaletasuna partekatzen dute» eta «kirola egiteko non hobe Baztanen baino? Inguruan mendi eta pista ederrak daude...». Kirola ez ezik, kirolaren aitzakiapean egiten dena ere gustatzen zaio: «lekuak ezagutzeko aukera» edota buelta ederraren ondotik, ederki merezitako afariak aipatu ditu. Horiek ere bertatik bertara egin ditzake: «Erratzuko taloak inguruko goxoenak dira. Eta afalondoan, segida nahi izanez gero, Zubipuntara joan eta beti dago norbait tragoxka baten bueltan solasaldi bat egiteko. Herritarren artean sortzen den giro hori ederra da». Ez du gehiegi eskatzen, duenarekin esker oneko da eta «inguruko jendea zorientsu ikustearekin eta maite ditudan pertsonen bueltan denbora pasatzearekin» aski du. Indarra eta bizitzeko gogoia antzematen da bere hitzetan eta bi osagaiok lagunduko dute buruan duen ametsa betetzen, hau da, «munduari buelta ematen». Segi orain artean bezala bizkarreko motxila bizipen ederrez betetzen!

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda bat bere lur eremuarekin salgai. ☎ 661 12 15 40.

ERRENTAN EMATEKO

LESACA. Azkaine karrikako 3. zenbakian, apartamentua errentan emateko. Logela bat, bainugela, trasteleku tiki bat eta sukalde-jangela. ☎ 628 04 20 47.

IRURITA. Pisua errentan emateko. Egoera onean eta dena kanpoaldera begira. Lehenbiziko pisuan. ☎ 645 71 73 25 / 609 95 52 41.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LEKAROZ. Hiru iturri ostatu-jatetxea errentan emateko (logelekin). ☎ 948 45 26 24 / 696 07 97 85.

SALGAI

BERA. Arrazoi pertsonalengatik bazarra traspasatzeko dute. 20 urteko antzinatasuna duen denda. ☎ 670 47 19 08 / 673 51 10 31.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ITUREN. Lur eremua salgai. ☎ 948 63 78 62 / 678 85 50 56.

LANA

ESKARIAK

BORTZIRIAK. 50 urteko emakume euskaldun batek haurrak edo adinekoak zainduko lituzke. ☎ 650 40 79 78.

Esperientziadun emakumea adinekoak edo haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko lan bila. Orduka edo interna. ☎ 644 85 81 34.

Adinekoak edo haurrak zaindu edota etxeko lanak egiteko esperientziadun emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. ☎ 644 96 38 20.

Adinekoak edo haurrak zaindu edota etxeko lanak egiteko esperientziadun emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. Erizaintzako ikasketak. Ostalaritzan ere esperientziaduna. ☎ 644 93 62 74.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Ostalaritza eta eraikuntzan esperientzia duen gizona lan bila. ☎ 644 49 13 31.

Emakume arduratsua lan bila. Interna edo externa, orduka, adinekoak edo haurrak zaindu eta garbiketa lanak egiten lituzke. Erreferentzia oso onak. ☎ 602 18 24 68.

ESKAITZAK

ARIZKUN. Enpresa batek langileak behar ditu. ☎ 649 62 88 49.

BERA. Churrut Hotelean lan egiteko zerbitzaria eta harreragilea behar dituzte. Bidali curriculum: info@hotelchurrut.com.

IBARDIN. Denda batean harakina behar dute. Esperientzia izatea ez da nahitaezkoa, ikas daiteke. Gida-baimena izatea eta frantsesetik jakitea kontuan hartuko dira. Egonkortasun

ekonomikoa eskainiko da. Harrematarako: rrhh@ventabiok.com.

BAZTAN. Pintura lanetan aritzeko langilea behar da. Esperientzia izatea baloratuko da. ☎ (0033) 603 34 70 76 (momentuan hartzen ez badu, utzi mezua).

DANTXARINEA. Maspormenos-en lanerako jendea behar dute. Kirol artikulua eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterketekoak, kanpoko jardueretarako... Curriculum: info@maspormenos.net.

IBARDIN. Sukaldari laguntzailea behar dute egunero lan egiteko. ☎ 629 91 23 93.

IBARDIN. Asteburuetan jabetxean lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 629 91 23 93.

IBARDIN. Mendiko jabetxean sukaldari laguntzailea behar dute, astebu-

ruetan eta jaiegunetan. Curriculumak: info@mendikoibardin.com.

IBARDIN. Frantsesa dakien langilea behar dute asteburuetan eguerdiko zerbitzua egiteko. Interesatuak idatzi: bentagorria@hotmail.com edo deitu. ☎ 638 44 17 20.

LESACA. Kokxonta jabetxean zerbitzari euskalduna behar dute. ☎ 608 75 72 28.

BAZTAN. Asteburuetan eta udan ostalaritzan lan egiteko jendea behar dute. ☎ 663 62 19 82 (telefonoz edo Whatsappez).

BERA. Frantses pixka bat dakien neska eta mutila behar dituzte sei hilabetez Larungo benta batean zerbitzari bezala aritzeko. ☎ 607 56 60 22.

ZUGARRAMURDI. Altxatenea jabetxean sukaldari laguntzailea behar dute maiatzetik abendura bitarte eguerdiko zerbitzuan lan egiteko. ☎ 948 59 91 87.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK


OPARITZEKO

3 hilabetezko **zakurkume mestizo emea** oparitzeko. ☎ 686 67 31 05.

DENETARIK

Katakume bat nahi dugu. ☎ 695 51 07 54.

SALGAI



Labrador arrazako txakurkumeak salgai. Urtarrilaren 21ean sortuak, apiril hasierarako prest zuen etxetara joateko. Osasun karneta eguneratua, bakunatuak, mikrotxipa eta kontrol guztiak pasata. Ama pedigriarekin, aita ez baina jatorrizko arraza mantentzen du. Giro familiarra eta konfiantzazkoa, edozein galdera edo xehetasunentzat deitu

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,20
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,10/6,70
- 8-10 kilokoak: 4,90/5,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 57 €

Zerri gizona 1,121 €

Zerramak 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

lasai. Bisitak egin daitezke konpromisorik gabe. Txepetxa albaitari zentroan (Bera) eginen dira hitzorduak nahi izanez gero. Prezioa: 300 euro. ☎ 0033 786 51 92 53. iraiaa.rin@hotmail.fr.

ETXALAR. 3 urteko behia salgai. Lehenbiziko umealdian 32 litro esne ematen zituen. Bortz hilabeteko ernari. ☎ 610 43 11 75.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Zakurren mendiko GPS bat aurkitu dute mendian. ☎ 687 15 37 59 / 617 74 44 91.

SALEROSKETAK




Garajeko ate automatikoa salgai, sekzionala, Roper markakoa. Estreinatua gabea, bere jatorrizko enbalejea. Urrutiko kontrolarekin eta bere ekipazio guztiarekin. 2,86 luzera, 2,72 zabalera. Gris argia. 1.000 euro. ☎ 608 17 45 10.

Belarra fardo ttikietan salgai, ongi idortua. ☎ 618 96 27 74.

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK
RENAULT
Estreinatua gabea
RENAULT KADJAR ZEN TCE 140 CV
Nabig. Aparkatzeko radar. kam. 19.400 euro
Estreinatua gabea
Dacia Duster Comfort TCE 115 CV
14.700 euro
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es



Armairua salgai. Neurriak: 241,6 (altuera) x 201,7 (zabalera). Egoera onean. ☎ 676 26 76 88.

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
350€
350€
500€
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Sampi Aragón
VOLKSWAGEN TOURAN
2016 urtekoa
VOLKSWAGEN PASSAT
2015 urtekoa
AUDI A1
KM 0 - 2018 urtekoa
DONEZTEBE | 948 450 354

Logotipoak
Txartelak
Oroigarriak
Argitalpenak
Egutegiak
Boletok

948 635 458
kulturkari.com

Maria Markategi sariak 2019
NABIAZKO LABURRIA / POESIA / KOMIKIA / BOKATUTSIA

Lur
NEGEN
LIV TIL DØDEN TOUR
+ SERRULLA
MARTXOAK
23 / 22:30
SARRERAK:
www.ticketea.com
Aurretik 12€
Elizondo: Mendi / Antza, Doneztebe: Titi
Egunean 15€

OROIGARRIA

Zuhaitz BALEZTENA AGIRRE

Donezteben, 2019ko martxoaren 11n,
bortz hilabete zituela hil zen.



Haizearen kontra hazten dira
zuhaitzik sendoenak.



AMA ETA ATTE

Eskerrik asko Madril, Iruñea eta Doneztebeko mediku taldeei eta bereziki,
gure ondoan egon diren guztiei.

OROIGARRIA

Zuhaitz BALEZTENA AGIRRE

Lehenik ezagutu zenuen gurasoen irria,
ondotik zure familia guztia.
Erakutsi diguzu nolakoa den bizia,
denen maisu, eredu izugarria.
Gure gudari ttiki-haundia!
Ez zaitugu inoiz ahaztuko Zuhaitz maitia!





SUNBILLA ETA ERATSUNGO FAMILIAK

URTEURRENA

Esteban IRIGOIEN IRIARTE

1924/01/29 - 2018/03/30

I. urteurrena



Maite ditut, maite,
gure bazterrak.
Apez eta euskaldun
izan eta izen.
ZURE FAMILIA



Bere aldeko meza martxoaren 31n, 10:00etan Berroetan

URTEURRENA

Joseba Andoni URDANITZ ETXEBERRIA

2002ko apirilaren 2an
XVII. urteurrena



Udaberriak bizia ekarriz
zure askatasun modua gogoratzen du
zure ametsak buruan izanik
zure indarra gure egiten dugu.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Xeli ETXEBERRIA IGUZKIAGIRRE

Emazte bikaina, ama paregabea eta
amatxi ezin hobea!

Egizu hegan
egizu lasai hegan
eta ezagutu itzazu
bizitzak ezagutzen
utzi ez dizkizun xokoak.



ETXEKOAK

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guztiei, mila esker.

OROIGARRIA

Juan Bautista eta Josetxo URROZ EZKURRA



Gogorra da onartzea,
gehiago ez
zaituztegula ikusiko,
baina bizi garen artean,
ez zaituztegu ahaztuko.



1942/05/22-2010/03/20
IX. urteurrena

1937/04/20-2010/02/19

ZUEN FAMILIA

Euren aldeko meza martxoaren 24an, 12:30ean, Berako San Esteban Elizan

URTEURRENA

Javier IGOA OTXOTeko

Lesakan, 2016ko apirilaren 2an
III. urteurrena



Beti irrifarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guztiekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.

ETXEKOAK

IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

48 ttipi-ttapa | 730 zk. | 2019-03-21

HERIOTZAK

- **Francisco Indart Sarratea**, Doneztebekoa, otsailaren 28an, 82 urte zituela.
- **Jabier Eskubi Larraz**, Leitzakoa, otsailaren 28an, 73 urte zituela.
- **Fernando Leizagoien Etxeberria**, Elizondokoa, martxoaren 1ean, 85 urte zituela.
- **Maria Luisa Olano Zaldua**, Berakoa, martxoaren 2an, 88 urte zituela.
- **Francisca Makazaga Goizueta**, Goizuetakoa, martxoaren 2an, 91 urte zituela.
- **Francisco Goienetxe Irigoien**, Iruritikoa, martxoaren 3an, 86 urte zituela.
- **M^a Jesus Sobrino Petite**, Elizondokoa, martxoaren 6an, 89 urte zituela.
- **Sebastian Ezkurra Etxekolenea**, Saldiaskoa, martxoaren 7an hil zen, 70 urte zituela.
- **M^a Pilar Apezetxea Zubieta**, Goizuetakoa, martxoaren 7an, 93 urte zituela.
- **Blasa Iribarren Aleman**, Elizondokoa, martxoaren 10ean, 89 urte zituela.
- **Zuhaitz Baleztena Agirre**, Doneztebekoa, martxoaren 11n, 5 hilabete zituela.

SORTZEAK

- **Laurentx Lefranc Coscarat**, Sarakoa, otsailaren 13an.
- **Telmo Mazon Apeztegia**, Doneztebekoa, martxoaren 7an.
- **Oihan Mitxelena Beristain**, Lesakakoa, otsailaren 18an.
- **Maria Anastasia Ratiu**, Lesakakoa, otsailaren 24an.

URTEBETETZEAK



Arraizoko Luken Laurnagaray
Perochenak 2 urte bete ditu martxoaren 8an. Aunitz urtez!! Muxu aunitz familia guztiaren partetik!



Irurritako Saioa Perotxena
Danborienak 11 urte bete ditu martxoaren 16an. Aunitz urtez eta muxu aunitz familia guztiaren partetik!



Aritz Portu Iraizozek
martxoaren 21ean 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu pila Artazkoz eta Lesakako familiaren partetik.



Kemen Tellebrea Bertiz lesakarrak 2 urte bete ditu martxoaren 11n. Muxu pila eta aunitz urtez Igantziko familiaren partetik.



Unax Maia Larralde gure etxeko morroxoak urtea beteko du martxoaren 31n. Muxu handi bat etxeko guztien partetik eta bereziki Jareren partetik.



Igantziko **Enara Urtxegi Rodrigo**, etxeko sorgin txikiak, bere lehendabiziko urtea bete du martxoaren 11n. Zorionak eta muxu erraldi bat familia guztiaren eta bereziki Unax eta Izaro anai-arreben partetik!!



Malen eta Kattalin Iparragirre Oteizak martxoaren 20an sei urte eta apirilaren 19an bi urte beteko dituzte. Aunitz urtez politak! Pasatu arras-arras ongi zuen urtebetetze egunetan. Mila muxu etxekoan partetik.



Zorionak izeba **Ekiñe!** Apirilaren 2an urteak beteko dituzu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki zure iloba Leiane, Naikari, Xabat eta Joritzen partetik. Muxu haundi bat eta afari goxoa prestatu!

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortziritan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGU, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

BB
BAZTAN BIDASOA
Ehorzeta Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDOn** Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAn** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEn** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka



Teresa Txoperena igantziarrak martxoaren 10ean 93 urte bete ditu eta **Kemen** birbilobak 2 urte biharamunean. Zorionak familiaren partetik.


Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak, TTIPI-TTAPAREN bitartez! Bi bide dituzu:


Internetez: <http://erran.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta Ttipi-Ttapa aldizkarian.

Bulegoan: Etor zaitez Ttipi-Ttaporen bulegora: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

PLAZAN BAZAN



IRUDI ENGAINAGARRIAK



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)


Zortzi zati hauetatik hiru irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako bostak engainagarriak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

SUDOKUA



Txinako kondaira baten arabera, Lu Mei neskatoak asmatu zuen aterkia, oso aspaldi. Erronka bota omen zion anaiari, euriaz babesteko tresna onena zeinek asmatuko, eta berak irabazi.

Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




MOZORRO FESTA

Inauterien aitzakian mozorro
besta egin zuten Pelloziri eta
Maripurtzilen eskolan.
Ea asmatzen duzun zein diren
gure protagonistak.


Maripurtzilek begiak erabat zabalik ditu eta, gezurra badirudi ere, geldik egoten saiatuko da, moztarroak hala eskatzen duelako. Makillajea behar izan du, eta orrazkera berezia.

Pelloziri guztiz ezkutatuta dago bere mozorro-jantziaren barruan, baina hortzak eta begiak agerian ditu. Espaloietan sarritan topatzen dira horrelakoak.



3 ZORTZIKO

Hiru elementu
hauek irudi nagusia
aurkituko dituzun
pertsonaien kopiak
dira, baina ez dira
berdin-berdinak.
Bakoitzari zortzina
alde aurkitu behar
dizkiozu.



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
- %80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

729 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera
Iñigo Zelaia Alonso | BERA
Okille tailerra - Eguzkilore bat
Ines Zelaia Erasun | ARANTZA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Jose Luis Mariezkurrena Apeztegia | EZKURRA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Maria Isabel Lertxundi Eizagirre | IRURITA
Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Begoña Jaurena Urrutia | URDAZUBI
Lesakako Udal Kiroledegia - 2 sarrera
Koteto Ezkurra Zunzarren | SUNBILLA
Elkar - Liburu bat
Nuria Idoate Irigoien | LEKAROS
Elkar - Liburu bat
Iker Barandarrain Caballero | ARESO

2 sarrera

BAZTAN ADENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
SORGINEN LEZEA
SARRERA

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

DOÑOSTIAKO AQUARIUMA

DOÑOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.
Kamiseta bat

MARTIKO
www.martiko.com

MARTIKO
Lote bat

MUSIKA

Kauta Agerre

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

LA GUNTZAI LEAK

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es